

BERDINTASUNA SEGURAN

Segurako jatorri askotariko emakumeen bizi-esperientziak eta gizarteratzea

2023ko ekaina



elhuyar
ezagutuz aldatzea



SEGURAKO UDALA



EMAKUNDE

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
Iturri Zuzenbidearen erakunde autonomoa
Euzko Legebiltzaria

AURKIBIDEA

| | | |
|-------|---|--------|
| 1 | SARRERA | - 1 - |
| 2 | HITZAURREA..... | - 2 - |
| 3 | ARAUDI MARKOA..... | - 3 - |
| 4 | EAE ⁿ ABIAN DEN BERDINTASUNERAKO PLANARI EGOKITZEA . | - 6 - |
| 5 | EGITASMOAREN HELBURUAK | - 9 - |
| 5.1 | Helburu orokorrak..... | - 9 - |
| 5.2 | Zeharkako helburuak..... | - 9 - |
| 6 | METODOLOGIA ETA LANEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA- | 10 - |
| 6.1 | Prozesuaren urratsak | - 10 - |
| 6.1.1 | Egitasmoa abiatu..... | - 10 - |
| 6.1.2 | Diagnostikoa eta esku-hartzeen definizioa (lehenengo fasea)- | 11 - |
| 6.1.3 | Diagnostikoa eta esku-hartzeen definizioa (bigarren fasea) - | 13 - |
| 6.1.4 | Emaitzak aurkeztu eta prozesua baloratu..... | - 15 - |
| 7 | DIAGNOSTIKOA ETA EMAITZAK..... | - 18 - |
| 7.1 | Segurako datu demografikoak | - 18 - |
| 7.2 | Bizi baldintzak..... | - 20 - |
| 7.3 | Gizarteratzea | - 23 - |
| 7.4 | Seguran ditugun sareak..... | - 34 - |
| 8 | ONDORIO NAGUSIAK | - 38 - |
| 9 | PROZESUA BERA ERALDAKETA ETA GIZARTERATZEKO GILTZARRIA | - 40 - |

1 SARRERA

Dokumentu hau Elhuyarren osatu du, Segurako Udalarekin elkarlanean. Seguran berdintasun alorrean salto kualitatibo bat eman nahi dute, jatorri askotariko emakumeen gizarteratze prozesuetan eraginkortasunez esku-hartu ahal izateko egungo egoeraren diagnostiko bat eginaz.

Dokumentu honetan, diagnostikoak eskaintzen digun egungo egoeraren argazkiaz gain, prozesuak berak Segurako jatorri askotariko emakumeengan eta udalarekiko harremanean izandako inpaktua jaso dugu. Hasierako helburuetatik haratago prozesua bera izan baita Segurako jatorri askotariko emakumeen bizitzetan, haien arteko sareetan eta herriarekiko atxikimenduan eragiteko eta askotariko eraldaketak gorpuzteko tresna.

2 HITZAURREA

Segurako Udalak 2019. urtean zehar egin zuen emakume eta gizonen berdintasunari buruzko herri mailako bigarren Plana, herrian emakume eta gizonen artean egon zitezkeen desberdintasunen aurrean eragiten jarraitzeko bide-orri berri bat eskaini zuena.

Honela bada, 2019. urtean jarri zen martxan Segurako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana, 2023ra arteko iraunaldiarekin. Segurako udalak aspalditik du berdintasun teknikaria eta, baita, zinegotzi propioa ere. Bide honetatik, 2018. Urtean Berdintasun Batzordea sortu zuten Segurako Udalean, zeinetan herriko emakume eta eragile feministek parte-hartzen duten. Geroztik, gorabeherekin bada ere, martxan dagoen egitura da. Berdintasun arloan urteak daramatzate jatorri anitzeko emakumeen zaurgarritasun egoerari arreta berezia jarritz politikara eta programa berezituak garatzen. Horren adibide da Berdintasun arloaren baitan espreski jasota dagoen eginkizuna: Herriko jatorri anitzeko emakumeen partaidetza eta ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzeko berariazko programak martxan jarri eta jarraipena ematea. Bide horretan, II. Berdintasun Planaren arestian aipaturiko hainbat helburu eta ekintza jasotzen dira jatorri anitzeko emakumeen errealitateari erantzuten diotenak.

Aurrekari horiekin eta 2023an II. Planaren indarraldiaren amaiera izanik, arlo honetan lanketa sakona egitea erabaki du, aurrerantzean esku-hartze eta berdintasun politika eraginkorrak garatzeko asmoarekin. Udal jarduerak inpaktu eta eragin erreala eduki dezan ezinbestekoa ikusten du Segurako jatorri anitzeko emakumeen errealitatea gertutik ezatzea, aurreiritzi eta suposizioetatik haratago emakumeek dituzten behar eta aukerak ezagutzea, hain zuzen.

Diagnostiko honen helburu nagusia Segurako Udalak berdintasunean aurrerapausoak ematen jarraitzeko tresna eraginkorra eta errealista izatea izan da, baita lanean jarraitu ahal izateko oinarriak ezartzea ere.

Helburu horien baitan nagusienak udalerriko jatorri anitzeko emakumeen gizarteratzean eta bizi-baldintzen hobekuntzan sakontzen jarraitzeko baldintzak sortu eta lantzea, eta herrira begira, kulturen anitzen arteko elkarbizitza eta komunitatea saretzea izan da.

Azken urteetan presentzia nabaria izan du jatorri anitzeko emakumeen gizarteratzea bultzatzeko Udaleko berdintasun politiken garapenak. Hemendik aurrera modu aktiboan emakumeen parte hartzea sustatzea izango da orain gakoa. Horretarako jatorri eta kultura anitzen zaintza eta elkarrekintza ardatz hartuta, espazio ezberdinak baliatu ditugu, komunitate bakoitzaren ezaugarrietan arreta jarritz eta hauetara egokituz.

3 ARAUDI MARKOA

EAE-ko Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legeak hasierako adierazpenean jasotzen duen modura, emakumeen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBERen Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten NBEko kideek: “printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”.

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean **Amsterdamgo Ituna** indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluaekin bat, **Batasuneko eta kide diren estatuetakoa politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.**

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikulua, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen du. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteez pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta (Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea, sorrarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku-hartzeari bultzatzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.

2/1988 Lege hori garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko zazpi plan onetsi ditu. Plan horietan euskal herri-administrazioen esku-hartzearen oinarritzko gida-lerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzeko eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Apustua une honetan zera da: berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatzen dela bermatzea, eta hori da, hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarraren Berdintasunerako 4/2005 Legearen xedea. Lege honek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi ditzaten lortzeko, halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaaren fenomenoak, egiturazkoa eta unibertsala dena, jendartetik desagerraraz dadin.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea, erreferentziazko araua dena, gizarteratzeari dagokion 45. artikuluan zera gehitzen du 5. puntuan: *Euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenean esparruan eta giza eskubideetan oinarritutako kulturarteko ikuspegi batetik, sustatu egingo dute atzeritar-jatorriko emakumeen, emakume migratuen edo beste nazionalitate batekoen berdintasun benetako eta eraginkorra, bai eta emakume ijitoena ere, eta kendu egingo dituzte emakumeok izaten dituzten oztopo gehigarriak, hala nola parte-hartzearekin,*

baliabideetarako irispidearekin eta estereotipo eta esleitutako rolekkin zerikusia dutenak. Bada, emakume zaurgarriek bizi dituzten diskriminazio anitzak ezabatzeko eta gizarteratze benetako bat emateko politika aktiboak sustatzeko betekizuna du administrazio publikoak.

Aurrez aipatutako guztiari jarraiki, Segurako Udalak urteak daramatza emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen. Horren ondorio dira diseinatu eta garatu dituen berdintasunerako bi Planak zein politika konkrituak. Aipatu berri dugun Berdintasunerako II. Planak 2020-2023 indarraldia du, beraz, garapeneko azken fasean dago. Urte hauetan, II. Planean jasotako ekintzei jarraiki, Segurako jatorri anitzeko emakume guztien egoera hobetzeko, udalaren ekimen zein herrian bertan beren parte-hartzea sustatzeko edota lan-merkatutzatzea errazteko lanean aritu da Udala. Bide honetan, ordea, Segurako jatorri anitzeko emakumeen gizarteratze eraginkor bat bermatzeko beren errealitateak gertutik ezagutzeko beharra identifikatu zuen Udalak. Izan ere, egiten dugun horretatik ikasten dugu beste inondik baino hobeto eta hori dela eta ezinbestekoa deritzogu bidean eten bat egin eta perspektibarekin egitea azken urteetako lanaren irakurketa, berriz ere norabidea markatu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzaren “**Migraziorako euskal itun soziala**” izeneko dokumentuak honakoa jasotzen du:

“Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan zein giza eskubideen zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorkinek, asilo-eskatzailleek, Bidaiderik Gabeko Adingabeek eta Gazte Atzerritarrek (BGAA/BGGA), iragaitzazko migratzaileek edo zaurgarritasun-egoeran daudenean eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizaziorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonen erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeko aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna. Migrazioari dagokionez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.”

Segurako Udaletik, eta maila teknikoan, Udaleko Berdintasun Arlotik beti lan egin izan da Segurako herrian bizi diren bizilagun guztien, eta bereziki emakume zaurgarrienen, aukera-berdintasuna bermatzeko. Herrikide guztiek beren eskubide eta betebeharrak ezagutzeko baldintzak sortzeko ikuspegi integratzailearekin egin da lan, alegia, pertsona bakoitzaren zailtasunak kontuan hartuz eta horietan positiboki baldintzak sortuz, udal zerbitzuetara iristeari dagokionez berdintasun-errealak lortzeko helburuarekin.

Testuinguru honetan, Segurako jatorri anitzeko emakumeen gizarteratze eta **aukera-berdintasuna** bermatzeko kontuan hartu beharko dira askotariko kultura eta bizi ohiturak dituzten pertsonekin lan egiteko moduak. Honek, politikak garatzeko moduak eta esku-hartzeak bestelako ikuspuntu batetik egitera behartzen gaitu. Anitzen arteko elkarlanean ekintza komunitarioak eskaintzen digun markoa oso erabilgarri zaigu. Gipuzkoako Foru Aldundiak urratsak eman ditu bide honetan eta **Ekintza**

komunitarioa Gipuzkoako Foru Aldundian eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa dokumentua argitaratu berri du. Ikaspen ugari atera dira prozesu honetatik eta, Segurako Udalak martxan jarriko duen diagnostikoak dituen ezaugarri espezifikoak medio, ikuspegi interesgarria eskaintzen digu jatorri anitzeko emakumeen diagnostiko eraginkor bat egite aldera. Marko honetan, zera adierazten du dokumentuan ekintza komunitarioaren inguruan:

“Zaurgarri eta behartsuenen, desparekotasuna gehien jasaten dutenen, bizi baldintzak hobetzea bilatzen du. Hortaz, proposatzen diren ikuspegi komunitariodun politika publikoak desparekotasuna eta bazterkeriaren aurka modu batera edo bestera borrokatzen duten politika publikoen eremuan sartzen dira. Politika eta gai ugariarekin lotutako ekintza komunitarioak izendatzeko eskatu denean, ondorengoak izan dira marko hau osatzeko antolatutako tailerretan gehien aipatu direnak: osasuna sustatzea, gazteak ahalduntzea, hezkuntza prozesuak, gizarte zerbitzuak, berdintasuna eta gizarteratzea, euskara, etxebizitza, emakumeak, LGTBI, zaintzak, kultura politikak, klima aldaketa eta jasangarritasuna, hirigintza eta espazio publikoa, besteak beste.”

Bada, komunitate kohesionatu, inklusibo eta bazterkeriarik gabea eraikitzeko herritarren inplikazioa eta protagonismoa bilatzen duten politikak eta egiteko erak sustatzeko tresnak eskaintzen dizkigu. Gurean, jatorri anitzeko emakumeengana gerturatzeko, elkarlanerako baldintzak sortzeko eta prozesu eraginkor bat garatzeko ezinbesteko tresna izan dena, hain zuzen. Horretarako, herritarrengana gerturatzeko ariketa kontziente eta komunitate bakoitzaren errealitateara egokiturikoa egin dugu. Jatorri anitzeko emakumeen partehartze aktiboa ahalbidetu duen prozesua eraiki dugu, Gu baten parte izateko ideia landu dugu Ni batetik baino haratago doan diagnostikoa eratzeke. Gertutasunetik eta begirada komunitariotik jatorri anitzetako emakumeen errealitateetara hurbildu eta Segura herri bizigarriago bat egiteko urrats bat gehiago egiteko prozesua eta emaitza jasotzen duen dokumentua da honakoa.

Prozesu honetan begirada interseksionala eta kulturartekoa bermatzeko, jatorri anitzeko emakumeen errealitateetara gerturatu eta beren ahalduntzea eta parte-hartze aktiboa sustatzeko **aholkulari espezializatu** baten laguntza izan dugu. **Aitziber Eguzkitzek** urteetako eskarmentua du jatorri anitzeko emakumeen ahalduntzea sustatzeko proiektu, talde eta prozesu anitzen kudeaketan. Begirada zabaldu eta prozesua askotariko kultura, jatorri eta bizi-ohituretara egokitzeko laguntza etengabea eskaini digu, prozesuaren hasieratik amaiera bitarte. Benetako prozesu parte-hartzailea gauzatzeko, jatorri anitzeko emakumeak protagonista izan eta haiena den proiektu bat gauzatzeko gako nagusietako bat izan da Aitziber Eguzkitzerekin aurrera eraman dugun elkarlana.

Honenbestez, egun Segurako jatorri anitzeko emakumeek bizi duten errealitatea ezagutu eta dituzten beharrak identifikatzeko **diagnostikoari** heldu diogu, gizarteratze eraginkor baterako ikaspenak ateratzeko.

4 EAEn ABIAN DEN BERDINTASUNERAKO PLANARI EGOKITZEA

Arestian aipatu bezala, Segurako jatorri anitzeko emakumeen egoeraren diagnostikoa egiteko garaian, lege-markoa eta erreferentziazko dokumentu hauek eduki ditugu kontuan:

- Otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako
- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren Aurka Osoko Babesa Emateko Neurriei Buruzkoa
- Eusko Jaurlaritzaren Migraziorako euskal itun soziala
- Ekintza komunitarioa Gipuzkoako Foru Aldundian eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa

Lege eta dokumentu horiek guztiak presente izan baditugu ere, lanerako erreferentzia nagusia EAEn indarrean den Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana izan da.

VII. Planaren dokumentuak erreferentzia egiten dio Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari. Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda pertsonen, planetaren, oparotasunaren eta bake unibertsalaren aldeko ekintza-plan bat da. Agenda hori munduko herrialde guztiei zuzenduta dago, eta Garapen Iraunkorrerako 17 helburu dauzka, 15 urteko epean (2015etik 2030era) garatuko direnak. Genero-ikuspegiari dagokionez, 2030 Agendak aurrerapen nabarmena dakar; batetik, "genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztien ahalduntzea" (5. helburua) helburu espezifikoko gisa jasotzen du, eta, bestetik, genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea oinarritzko elementuak dira proposatutako gainerako helmuga eta helburuak lortzeko. Estatuak helburu horrekiko duten konpromisoa ez da soilik formala; izan ere, berau ezartzeko bitartekoak esleitzea baitakar berekin. Zehazki, 5. helburuko jomugek barne hartzen dutena aztertzen badugu, emakume migranteei erreferentzia zuzena egiten dioten 8. eta 10. puntuak topatzen dira:

- ODS8. TAXUZKO LANA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA
 - o Enplegu betea eta produktiboa lortzea eta lan duina bermatzea gizon eta emakume guztientzat, barne hartuz gazteak eta desgaitasunen bat dutenak, eta balio bereko lanagatik ordainsari bera jasoko dutela bermatzea.
 - o Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta babestua sustatzea, bereziki emakume migranteentzat eta enplegu prekarioa dutenentzat
- ODS10. DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA
 - o Pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea eta sustatzea, adina, sexua, desgaitasunak, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomiko eta beste edozein ezaugarri alde batera utzita.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean asotako berdintasunaren printzipioa eta arau horren arabera euskal botere publikoen jarduna arautu behar duten printzipio orokorrak oinarri hartu eta horietako batzuetan sakontzen du. Bestek beste, **interseksionalitatearen** kontzeptuari dagokionez zer adierazten du: *Genero-*

ikuspegiaren ikuskera konplexu eta integralago batetik, VII. Plan honek generoa eta beste desberdinkeria batzuen arteko interseksionalitatea onartzen du bere estrategiaren diseinuan. Nahiz eta patriarkatuan emakume guztiak genero-identitate bera izan, guztiak ez dituzte ezaugarri berberak. Horregatik, beren aniztasunean, emakumeak ere desberdinak dira beren artean, generoa eta beste desberdinkeria- eta diskriminazio-iturri batzuekin (hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazio eta genero-identitatea, adina, dibertsitate funtzionala eta abar) elkarrekikotasunean erlazionatzeko duten moduaren arabera. Interseksionalitateak berekin dakar ekintza konplexuagoa eta integratzaileagoa proposatzea, zeinak agerian jarriko dituen emakumeen aurkako desberdinkeriak areagotzen diren egoera horiek. Ekintza-mota horrek oraindik ez du ibilbide handirik politikan eta instituzioetan, eta ondorioz, zailagoa da ezartzea

VII. Planaren osaerari erreparaturik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak bi dimentsio bereizten ditu: erakundeen barrura begirakoa bata, eta herritarrei begirakoa, bestea:

- **Gobernu Ona:** erakundeetan bertan eta euskal administrazio publikoaren barne-funtzionamenduan berdintasunaren printzipioa sustatzeko eta integratzeko.
- Herritarren esku-hartzerako ardatzak, **hiru lehentasunezko esparru** zehazten direlarik: emakumeen ahalduntzea; ekonomiak eta gizarte-antolakuntzak eraldatzea; eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Prozesu honetan herritarren esku-hartzerako esparruak izan ditugu erreferentziazko eremu, zehazki jatorri anitzeko emakumeei erreferentzia zuzena egiten diotenak. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak **berdintasunaren arloko lehentasunezko jarduera-alorrak biltzeko ardatzak** jasotzen ditu. Ardatz bakoitzak lanerako lehentasunezko ildoak zehazten dituzten programak biltzen ditu.

Guztira, VII. Planak **hiru ardatzetan bildutako zazpi programa ditu**. Hona hemen ardatzak eta ardatz horiekin lotutako programak:

- **Emakumeen ahalduntzearen ardatza**
 - Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea
 - Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea
- **Ekonomia eta gizarte-antolakuntza eraldatzea ardatza**
 - Berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea
 - Emakumeen autonomia ekonomikoa
 - Zaintza-lanen ekonomia feminista
- **Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren ardatza**
 - Sentsibilizazioa eta prebentzioa
 - Detekzioa, arreta eta berroneratzea
 - Erakundeen arteko koordinazioa

Lanerako komeni da noski, ardatz horiek zein kontzepturen gainean eraikita dauden jakitea eta barneratzea. Alegia, **komeni da garbi edukitzea, balio-aldaketaz, ahalduntzeaz, antolaketa sozial erantzunkideaz edota emakumeen aurkako indarkeriaz ari garenean, zertaz ari garen.**

Gainera 1/2022 Legeak aldaketa kualitatiboak ekarri ditu terminoak ulertzeari dagokionez; izan ere, orain arte ez bezala, indarkeria matxista ere xehetasun handiz jasotzen da legean, lege integral bat sortuz. Honela, ikuspegia aldatu da hein batean, indarkeria matxistari dagokionez batez ere. Hala ere, beste hainbat ataletan ere sakontzen du lege honek, hala nola, emakume zaurgarrienen gizarteratzea, zaintza edota erantzunkidetasuna.

Prozesu honetan, arreta berezia jarri diogu VII. Planaren **I. ardatzari: Emakumeen Ahalduntzea**. Bizitzaren eremu guztietan dauden desberdintasunak, pobrezia eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko ardatza ez ezik, proposatutako plangintza osoa gidatzen duen printzipio bat ere bada, zeren eta, Emakumeen Nazioarteko IV. Biltzarrean erabaki bezala, emakumeen ahalduntzerik gabe ez dago berdintasunik (Beijing-eko Adierazpena -1995-, 13. artikulua). Honela bada, Ahalduntzearen ardatzaren 2. programan, emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntzari dagokiona, honako ekintza jasotzen du, jatorri anitzeko emakumeei erreferentzia zuzena egiten diona: 2.1.3 Munduan emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna eta, bereziki, emakume errefuxiatuen eta migratuen eskubideak sustatzen dituzten emakume-elkarteen eta gizarte-erakundeen kopurua handitzea.

Bide honetan, **VII. Planaren hirugarren ardatzean, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak** izenburupean, Emakundek 2016ean jasotako datuak erabiltzen ditu ondorengo ekintza eta programak justifikatze aldea. Datu horien artean, jatorri anitzeko emakumeen inguruko berariazko azterketa topatzen dugu eta zera dio:

- Emakumeen % 62,71 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioa zen, nahiz eta datuek adierazten duten emakumeen aurkako indarkeriak prebalentzia handiagoa duela emakume migratzaileen artean, EAeko emakumeen guztizko biztanleriaren % 6,14 baitira horiek (biktimen % 64,43 Amerikatik etorritakoa da; % 18,41, Europako beste herrialde batzuetatik; % 17,93, Afrikatik eta % 2,23, Asiatik)

Hirugarren ardatz honen 6. programak, **sentsibilizazio eta prebentzioari** dagokionak, honako adierazpena jasotzen du: nahiko adostasun handia dago emakumeen aurkako indarkeriari buruzko mito eta iritzi batzuen gainean. Esate baterako: alkoholaren eta drogen abusua dago emakumeen kontrako indarkeria matxistaren ekintza gehien atzean (% 62 oso ados edo nahiko ados dago), eta eraso gehienak estres-maila handiko egoeretan edo une batez kontrola galtzen denean gertatzen dira (% 61 ados dago). Horien atzetik, sinesmen hauek datoz: salaketa faltsu asko egiten dira genero-indarkeriaren kasuetan (% 39); etxean bortizkeriaz jokatzaren duenak bortizkeriaz jokatuko du lanean eta lagunekin (% 38), eta **indarkeriaren biktima diren emakume gehienak immigranteak dira (% 27)**.

Seguran aurrera eraman dugun prozesuan Emakunderen Planaren ildoekin bat etorri behar duela diogunean, batez ere esaten ari gara da, Segurako jatorri anitzeko emakumeen egoeraren diagnostikoak zehaztutako helburuetara gerturatu izana ez ezik, Emakundek bere planean proposatzen dituen helburuetara zein punturaino gerturatu garen aztertu dugula prozesuan. Gainera, prozesuan zehar, indarrean dauden berdintasun-politikak eta araudiak kontuan hartzeaz gain, feminismoaren ildoei eta proposamenei ere garrantzi berezia eman diegu.

5 EGITASMOAREN HELBURUAK

5.1 Helburu orokorrak

Egitasmo honetan definitu genuen helburu orokorra hau da: Segurako jatorri anitzeko emakumeen inguruko diagnostikoa egitea eta gaur egungo erronkak identifikatzea.

Honenbestez, esku artean dugun prozesuak bi fase nagusi izan ditu:

1. **GAUR EGUNGO EGOERA AZTERTZEA.** Segurako jatorri anitzeko emakumeak identifikatu eta landa lana egingo dugu. Helburua izango da jatorri anitzeko emakumeek errealitateak ezagutzea, emakume eta jatorri anitzekoa izateak dakartzan bizipen eta esperientziak biltzea, Seguran eremu ezberdinetan dituzten aukera eta zailtasunak identifikatzea eta, ahal den neurrian, komunitate ezberdinak bildu eta sareak jostea. Udalerriko jatorri anitzeko emakumeen arazo, behar eta interesak ezagutu, eta desberdinkeria nagusiak identifikatuko ditugu, hurrengo urteetan lanean jarraitzeko gako nagusiak non dauden jakiteko.

Laburbilduz, jatorri anitzeko emakumeen bizi esperientzia zehatzen inguruan hausnartuko dugu, beren errealitateetara gerturatuz ikasteko.

2. **IKASITAKOA BILDU ETA DOKUMENTATZEA.** Berdintasunaren ikuspegitik eta eremu zein arlo ezberdinetan jatorriko anitzeko emakumeek bizi duten errealitatea dokumentatu eta erronka nagusiak zeintzuk diren aztertuko dugu.

5.2 Zeharkako helburuak

Egitasmo honi, helburu orokorrez gain, zeharkako helburu hauek ere ezarri dizkiogu:

- Prozesuan inplikaturako emakumeak subjektu aktibo izateko eta ahalduntzea. Zentzu honetan, indar berezia jarriko dugu jatorri ezberdinak eta norbanakoen sareak eta bizi ohiturak kontuan hartzen eta zaintzen, gonbidatuak baino prozesuaren protagonista izan eta elkarrengandik ikasteko espazioak sortuko ditugu.
- Ez dugu gure ikuspegi eta ezagutza kokatutik egindako prozesu eta diagnostikorik egingo. Gidari eta bidelagun izango garen prozesu honetan, subjektibotasun ezberdinen elkarlanarekin eta ikuspegi anitzetatik eraikita egingo dugu lan.
- Emakumeen eta Udalaren arteko zubiak indartzea, berdintasun politika eta beren garapena emakume anitzengana gerturatu eta elkarlanerako baldintzak indartzea.
- Prozesua baliatuko dugu udalerriko emakume anitzen arteko eta herriko elkarte eta eragileen arteko harremanak lantzeko.

6 METODOLOGIA ETA LANeko PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Prozesuaren berezitasunak kontuan izanda, ez dugu metodologia zehatz batetik edan jatorri askotariko emakumeekin batera egindako bide honetan. Hizkuntzaren, parte-hartzeko kultura anitzen eta komunikatzeko estiloen askotariko errealitateak izan ditugu prozesuan zehar, honek, malgutasunaren, segurtasun espazioen, konfiantzaren eta elkarrizketaren balioak erdigunera ekartzea eskatu digu. Saretzeko eta elkar ezagutzeko dinamika sinpleak, elkarrizketak bideratzeko gidoi malguak eta gertuko hizkuntza zein komunikazio estiloak erabiltzea izan da prozesu honen metodologiaren oinarria. Pertsonaetik politikora salto egiteko, egunerokotasunetik abiatutako elkarrizketa indibidualak kolektibizatzeko estrategiak garatu ditugu. Bizi-esperientzia partikularrak kolektibizatu eta ikusezina denari hitza jartzeko espazio eta baldintzak sortu ditugu, askotariko kultura politiko eta sozial elkartu diren espazioak emankorrek izateko aukerak zabaldu dizkigutenak. Prozesua bideratu dugun bi teknikarien arteko rolak ondo banatzea, aurretik gidoiak eta saioen helburu zehatzak ondo landu eta barneratzea eta, batez ere, unean uneko egoeretara egokitzeak malgutasuna izatea ezinbesteko alderdiak izan dira prozesu honen metodologiari deritzenez.

6.1 Prozesuaren urratsak

Segurako jatorri askotariko emakumeen diagnostikoa eratzeko prozesua 2023ko otsailean abiatu genuen. Jarraian, hilabete hauetan ikuspegi metodologiko batetik prozesuaren urratsak jasota daude:

6.1.1 Egitasmoa abiatu

Egitasmoa abiatzeko, lanerako oinarri sendoa izan den Talde Eragilea sortu dugu. Egitura hau Segurako alkateak, Izarrak, ezagutza teknikoko aholkulariak, Aitziberrek eta Elhuyarreko teknikariak osatu dugu. Talde Eragilearen funtzio nagusia egitasmoarekin lotutako jardura guztiak koordinatzea eta horiei etengabeko segimendua egitea izan da. Prozesuak irauten duen bitartean 3 bilerak egin ditugu; hala ere, jatorri askotariko emakumeekin buruturiko bakoitzaren aurretik Talde Eragileko kideon arteko bilkura laburrak egitea sistematizaturik izan dugu prozesu osoan zehar. Edozein modutan, telefono nahiz posta elektronikoaren bidez etengabeko harremana ere eduki dugu.

Talde Eragilearen lehen bileran prozesuaren kronograma eta egiteak errepasatu genituen eta prozesuaren dimentsioa eta aukerak ikusirik hiru fase ezberdinetan banatu genituen egin beharreko saioak. Hala, lehen fasean hiru saio nagusi egitea aurreikusi genuen eta, ondoren, saio hauetan parte-hartu zuten emakumeekin batera prozesuaren azken bi faseak diseinatu eta garatzeko erabakia hartu genuen. Ondorioz, prozesua jatorri askotariko emakumeek ere bere egitea lortu dugu eta baita guztion behar eta aukerei erantzun dien proiektu bat garatzea. Egiteko modu honek oinarri sendoak eman dizkio prozesuari, kualitatibo eta kuantitatiboki kalitatezkoa izateko bermeak eskainiz.

Egitasmoaren komunikazio-plana

Prozesua abiatzeko garaian oso garrantzitsua izan da egitasmoaren xede izan diren pertsonak eta taldeak ondo identifikatu eta zehaztea, eta horiei begira egin beharreko komunikazio-ekintzak definitu eta egokitzea. Arestian aipatu dugun moduan, ekintza komunitarioaren balioak izan dira prozesu honen oinarri eta hau, bereziki, komunikazio ekintzetan gorpuztu da: jatorri askotariko emakumeak gure komunikazio bideetara eta gure egiteko moduetara gerturatu beharrean, geu joan gara haien eguneroko espazioetan informazioa partekatzen. Segurako alkatea, Izarra, izan da zuzeneko

komunikazio lan hauek egin dituen; alde batetik, saio bakoitzera gonbidaturiko jatorri askotariko emakume bakoitzaren postontzian gonbidapen gutunak sartu ditu eta, bestetik, Segurako kaleetan zehar haiekin elkartzeko tarreak hartu ditu aurrez aurreko gonbiteak egiteko. Hau izan da saioen izan duten arrakastaren arrazoi nagusietako bat, instituzioak eta ardura publiko duten pertsonak herritarrengana zuzenean gerturatzeko konpromisoa. Era berean, garrantzi handi aizan du komunitate bakoitzeko aliatu bat identifikatzea; sareak handitu eta irisgarriak ez ziren emakume profiletara iristeko aukera eman digu aliatuekin etengabeko harreman eta komunikazioa izateak.

Emakume aditu batekin elkarlan eta kontraste jarraitua izan dugu. Prozesu honek duen berezitasunagatik eta begirada intersezionala bermatzeko helburuarekin Aitziber Eguzkitza emakume etorkinen ahalduntze prozesuetan esperientzia eta eskarmentu handia duen adituarekin etengabeko elkarlana izan dugu. Jatorri, kultura eta ohitura ezberdinen aitortza eta errespetuan oinarrituriko prozesu batean, ezinbestean egiteko moduak, komunikatzeko moduak eta elkarrizketak egiteko erak modu berezitu batean lantzea. Benetako prozesu parte-hartzaile bat, jatorri guztiak kontuak hartuko dituen eta haietara egokituko dena garatzeko, urteetan eremu honetan lanean aritu den pertsona baten begirada eta eskarmentua edukitzea ezinbestekoa dela iritzi dugu. Honela bada, prozesuaren hasieratik amaierara lan ezberdinetan bidelagun izan dugu Aitziber Eguzkitza, besteak beste: hasierako kronograma eta elkarrizketa taldeak osatzeko fasean akonpainamendua, saioen prestaketa eta dinamizazioan laguntza, jatorri anitzeko emakumeekin egin dugun azken agurraren saioaren prestaketa eta dinamizazioa eta azken dokumentuaren kontrastea egiteko.

6.1.2 Diagnostikoa eta esku-hartzeen definizioa (lehenengo fasea)

Egitasmoaren helburu nagusietako bat da jatorri anitzeko emakumeen errealitateak ezagutzea, emakume eta jatorri anitzekoa izateak dakartzan bizipen eta esperientziak biltzea, Seguran eremu ezberdinetan dituzten aukera eta zailtasunak identifikatzea eta, ahal den neurrian, komunitate ezberdinak bildu eta sareak jostea.

Hori horrela, lehenik eta behin, Segurako Udalean zein herrian orain arte egin den lana aztertu dugu. Horretarako, **Segurako alkatearekin sakoneko elkarrizketa bat** burutu dugu martxoaren 9an. Herrian orain arte egindako lana ezagutu nahi izan genuen, eskura dituzten baliabideak aztertu, egun kultur-aniztasunaren inguruan lanean ari diren eragile eta norbanakoak identifikatu eta, oro har, instituzio publikoaren ikuspegitik eta Segurako alkate gisan jatorri askotariko emakumeek herrian bizi duten errealitatearen inguruko ikuspegia partekatzeko tarrea hartu dugu. Elkarrizketa honen bidez, Planak eta azken urteetako jardunak eremu honetan izan duen eraginaren eta egindako ibilbidearen inguruko gogoeta kualitatiboa egin dugu. Era berean, aurrerapausoak ematen lagundu duten faktoreak eta zailtasun nagusiak identifikatu ditugu, egindako bidetik ikaspenak ateratzeko.

Horretaz gain, dokumentazio esanguratsua aztertu dugu. Orain arte berdintasunaren eremuan jatorri anitzeko emakumei zuzendurik egin den lana ebaluatu ahal izateko Berdintasunerako II. Planaren indarraldian zehar landu diren memoria-txostenak, Exceleko tresnan egindako oharrak edota segimendurako sortutako bestelako dokumentuak bildu eta aztertu ditugu. Azterketa honetatik orain arte egindako lanaren inguruko informazioa osatu dugu.

Gainera, Udaleko nahiz udalerriko hainbat eremutako informazio kuantitatiboa jaso eta aztertu dugu, nagusiki bigarren mailako datuak erabiliz: Eustat; Segurako Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia; etab.

Jatorri anitzeko emakumeen kolektibo jakinen beharrak, arazoak eta interesak ezagutzeko talde-elkarrizketak bi fase ezberdinetan banatu ditugu. Lehenik eta behin Seguran identifikaturiko jatorri askotariko hiru komunitate nagusirekin egin ditugu talde-elkarrizketak:

| LANSAIOA | EZAUGARRIAK | DATA |
|---|---|------------|
| Emakume musulmanekin lan-saioa | Hiru emakumerekin lan-saioa egin dugu: bi marokoar eta pakistandar bat. | 2023-03-17 |
| Portugalgo eta Hego Amerikako emakumeekin lan-saioa | Hamar emakumerekin lan-saioa egin dugu: lau emakume portugaldar eta Hego Amerikako sei emakumerekin (Kolonbia eta Boliviakoak). | 2023-03-31 |
| Portugalgo eta Hego Amerikako emakumeekin lan-saioa | Hamar emakumerekin lan-saioa egin dugu: lau emakume portugaldar eta Hego Amerikako sei emakumerekin (Kolonbia eta Boliviakoak). | 2023-04-28 |

Portugal eta Hego Amerikako emakumeekin egindako lehenengo saioa emankorra izan zen oso, baina, emakume kopuru altuak parte hartu zuenez hainbat arlotan sakontzeko denbora falta izan genuen. Gainera, saioan parte-hartu zuten emakumeek berriro elkartzeko prestasun eta gogo handia adierazi zuten, beraz, bigarren saio bat egitea erabaki genuen.

Era berean, emakume musulmanekin zein Portugal eta Hego Amerikako emakumeekin egindako saioetan guztiok batera bildu eta espazio amankomun batean lanketa egiteko interesa adierazi zuten guztiok. Hala, emakume guztiok batera prozesuaren bigarren fasea osatu genuen, guztiona zen bide-orria idatziz.

Saio hauetan, kontuan izan dugu hizkuntza ezberdinek espazio berean izango duten tokia. Hizkuntza muga izan ez dadin eta norik eroso sentitzen den hizkuntzan parte-hartzeko aukera izan dezan neurriak hartu ditugu. Beharren arabera erabaki dugu neurri hauen zein mailatakoak izan diren.

Saio guzti hauetan amaierako balorazioak egin ditugu eta, oro har, oso balorazio onak izan ditugu saioetan:

- *Fenomenal*
- *Aliviada, porque no soy la única. No estoy sola. Conocernos más. Aprendes como desenvolverse, como habilitarse más las cosas para el bienestar de cada uno.*
- *Me gustó.*
- *He estado a gusto*
- *Hay que repetir, he estado muy bien, se me ha pasado en seguida.*
- *Sorprendida, con el interés que tienen.*
- *Agradable.*

- *Bien agradecida, conozco poco, no sabía de tanto inconveniente.*
- *Para los 18 años que llevo aquí la primera vez que se preocupan por los latinos.*
- *Nos parece maravilloso, que no solo sea con este grupo.*
- *Que no termine el proceso con esta sesión.*
- *Estamos muy agradecidas. Quedamos a las 18.00 los viernes.*
- *Yo estoy super bien, no sé, me estoy sintiendo como si no fuera un ambiente, no es un ambiente de inmigrantes, un ambiente de pueblo, super bien, entre mujeres.*
- *Estaba con dolor de cabeza el ambiente el buen ánimo, la buena energía es como sentirse en casa, de hablar de decir cosas, de compartir y todo eso. Pesan más las buenas*
- *Estoy muy contenta y bien*
- *Bien contenta, agradecida, agradable, me gusta porque puedo hablar en casa no hablo. Solo hablo cuando voy a clases de euskera.*
- *Agradable el ambiente, conociendo.*
- *Muy bien, encantada porque igual vas por la calle le ves no le hablas y cuando tuvimos la primera reunión hemos coincidido en la plaza hemos hablado, estas más a gusto cuando vas coincidiendo con la gente. Vengo al pueblo y vivo a qui y no me siento inmigrante.*
- *Yo encantada, estoy bien. Si hacéis una vez a la semana yo vengo, a mí me gusta socializar con gente, en casa siempre estoy con los mismos.*
- *También estoy muy bien contenta, conociendo, nos vemos en la calle, pero sin confianza para saludarnos, ahora nos vemos y oye qué tal cuando es la siguiente reunión tenemos algo más que compartir.*
- *Encantadísima de sentirme tan integrada, algo tan rico que disfruta una totalmente.*

6.1.3 Diangnostikoa eta esku-hartzeen definizioa (bigarren fasea)

Prozesua aurrera joan ahala, parte-hartu duten emakumeekin batera irudikatu dugu diagnostikoaren bigarren fasea. Bada, jatorri askotariko emakume guztiekin batera saio bat egiteaz gain Segurako eragile, langile publiko zein norbanakoekin saio berezitu bat egitea adostu genuen. Prozesuari zein diagnostikoari ikuspuntu berri bat eskaini dioten emakumeak biltzea izan da helburua, lehenengo pertsonan baino, Segurako herritar edota langile publiko gisan jatorri askotariko emakumeen bizi-baldintza eta gizarteratzeko aukera eta zailtasunen inguruan duten pertzepzioak jaso nahi izan ditugu.

Beraz, honako hauek izan dira aurrera eramán ditugun talde-elkarrizketak:

| LANSAIOA | EZAUGARRIAK | DATA |
|----------|-------------|------|
|----------|-------------|------|

| | | |
|--|--|-------------------|
| <p>Herriko eragile, elkarte eta norbanakoekin lan-saioa</p> | <p>4 emakume elkartu gara: Berdintasun teknikaria, Gizarte hezitzaileak, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria eta liburuzaina. Orain arte jasotako informazioa partekatu eta prozesua gidatu duen eskema jarraiki, beste begirada batetik, teknikoagoa izan dena, pertsona esanguratsuen bizipenak eta ikuspegiak ezagutu ditugu.</p> | <p>2023-05-31</p> |
| <p>Emakume musulmanekin, portugaldarrekin eta hego amerikarrekin lan-saio bateratua.</p> | <p>15 emakume bildu gara (8 emakume marokoar, 2 emakume portugaldar eta 4 Hego Amerikakoak, Kolonbia eta Venezuelakoak, Ekuatore Gineako emakume bat); lan-saio honetan elkar entzuteko ariketa egin dugu. Bizi esperientziak partekatu, aurreiritziak gainditu eta saretzeko aukera izan dugu bertan.</p> | <p>2023-05-12</p> |
| <p>Jatorri askotariko emakumeak, alkatea eta Elhuyarreko teknikariekin itxiera saioa</p> | <p>Forma berezia eman diogu espazio honi, lan-saio normal bat baino esperientziak partekatzeko, prozesu honek norbanako gisa eman digunaz jarduteko, Segura hobe bat lortzeko ditugun ametsak elkarbanatzeko, esperientzia honi segida emateko aukerak proposatzeko eta kultura ezberdinetako janari, musika eta dantzak ezagutzeko tarteak izan dugu.</p> <p>10 emakumek hartu dute parte saioan, marokoarrak, sahararrak eta portugaldarrak.</p> | <p>2023-09-08</p> |

Jarraian saio hauetatik jasotako balorazioak jaso ditugu:

- *Me voy con ganas de hablar más. Hay todavía muchas cosas que decir. Salgo muy bien.*
- *Muy contenta, muy bien, muy a gusto; gracias, mando un beso.*
- *Muy contenta, muy alegre de haberos conocido a todas, alguna la conocía de vista, la mayoría. Llevo 18 años en el pueblo, pero no salgo, no me van a ver mucho. Un poco más de tranquilidad para hablar, pero muy contenta.*
- *Súper bien, muy ilusionada con este grupo, compartir nuestras vidas me ha llenado.*
- *Muy bien todo.*
- *Ha faltado calma porque no había guardería.*
- *Yo quería más. Hemos estado a gusto.*
- *Salgo con nuevas caras, me siento bien. Conozco a más personas.*
- *Feliz, con 30 caras nuevas, eso me nutre, me gusta.*

- *Con nuevas caras que no sabía que vivían en Segura; el gusto de conocer a nuevas personas, llevarme más con mi vecina, solo nos vemos por la calle, he tenido oportunidad de conocerla más.*
- *Contenta, oportunidad de poder conocer a la gente. Lo único malo los niños.*
- *Un placer conocer a estas guapas, de verdad muy contenta a la mayoría nunca las había visto.*
- *Lo bonito es que ahora nos podemos saludar en la calle.*
- *Berriro egin.*
- *Queremos repetir, hablar más.*
- *He venido de trabajar corriendo, aquí hay una paz y te sientes muy a gusto. Hoy ha sido un tormento, éramos muchas y no sabemos escuchar. Hay que saber escuchar más. Y nada más.*
- *Yo creo que todas nosotras llevamos la misma palabra de reunirnos, ponernos caras; yo estoy contenta de conocer muchas caras, primer contacto.*
- *Estaría bien poder tener esta experiencia con mujeres inmigrantes y dos o tres personas del pueblo, mezclarnos también en este sentido.*

6.1.4 Emaitzak aurkeztu eta prozesua baloratu

Azken fase honetan, prozesuan inplikatu ditugun pertsonen nahiz herritarrei, oro har, egitasmoaren eta emaitzaren berri emateko urratsak aztertu ditugu, eta egindako prozesua nahiz lortutako emaitza baloratu dugu. Bada, hasieratik kanpo-komunikazioaren beharrik ez dugula argi izan dugu, helburua jatorri askotariko emakumeen errealitateak ezagutzea izan da, baina, ez bizi-esperientzia hauek sozializatzea. Hala ere, prozesuaren amaieran espazio ezberdinak izan ditugu egindako lana zabaldu eta halako prozesu parte-hartzaileen eta intersektionalitatearen garrantzia sozializatzeko. Plazarik esanguratsuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Elhuyarrek batera antolaturiko jardunaldiak izan ziren. Herritarren parte-hartzearen eta ekintza-komunitarioaren inguruan herri txiki eta ertainen esperientziak partekatzeko espazioa izan zen eta aukera izan genuen bertan prozesua sozializatu eta bestelako udalerriekin partekatzeko.

1. Talde Eragilean prozesua eta emaitza baloratu

Egitasmoa ixteko, hilabeteetan zehar burututako prozesua eta lortutako emaitzak baloratu ditugu Talde Eragilean.

Balorazio hau Talde Eragilean egin dugu modu sakonean, bertako partaideak baikara prozesu osoari segimendu estua egin diogunak. Halere, Talde Eragilea ez da prozesuaren eta emaitzaren balorazioa inplikatu dugun gune bakarra: elkarrizketa eta lantzaio guztiak baloratu ditugu.

Idea izan da prozesua etengabeko ebaluazioaren ikuspegitik garatzea, egiten dugun urrats oro baloratu, eta prozesuan parte hartuko duten kide guztiak balorazio-prozesuan inplikatu.

Emaitza eta prozesua baloratzeko adierazle kuantitatiboak erabiltzea bezain baliagarria eta garrantzitsua da prozesuaren eta emaitzaren balorazio kualitatiboa egitea.

. Hona hemen azken Talde Eragilean egindako balorazio kuantitatiboa:

| PROZESUA | EMAITZA |
|---|---|
| <p>Kuantitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none">• Saioetan 23 emakumek hartu dute parte.• Hasieran Segurako jatorri askotariko emakume guztiak gonbidatu genituen, helburua ez zen izan guztien parte-hartzea, baina, hasierako zerrenda zabaletik emakume askok ez dute prozesuan parte-hartu eta jasotako argazkia lagin zehatz batena da, bada, ezin dugu orokortu dokumentuan jasotako edukia Segurako jatorri askotariko emakume guztien errealitatera.• Parte hartu duten emakumeen asebetetze maila oso altua izan da.• Prozesuan udal langile ezberdinak inplikatu ditugu ere.• Jatorri ezberdinetako emakumeak izan ditugu prozesuan: Kolonbia, Brasil, Venezuela, Maroko, Portugal, Sahara, Ekuatore Ginea eta Nepal. | <p>Kuantitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none">• Landutako azken dokumentuak, diagnostikoa alegia, hasieran ezarritako helburuetan zehazturiko edukiak jasotzen ditu eta emaitzak Talde Eragilearen asetasun maila altua lortu du. |

Balorazio kualitatiboaz ari garenean, berriz, bestelako elementuak baloratzeaz ari gara:

| PROZESUA | EMAITZA |
|---|---|
| <p>Kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none">• Ikasketa prozesu handia izan da, bai Talde Eragilean geunden pertsonentzako (deseraikitze prozesua, aurreiritziak gainditu eta bestelako kultura eta egiteko erekin lan egiten ikastekoa, konfort egoeratik ateraz lan egitea, etab.). Era berean, prozesua bera irekia izateak eta bidea egiten goazen heinean prozesua gorpuztea ikasketa sendoa izan da. Hau da, parte hartu duten emakumeekin batera prozesua egiten | <p>Kualitatiboa</p> <ul style="list-style-type: none">• Egindako azterketak asko ase gaitu, hasieratik identifikaturiko eremuen inguruan informazio esanguratsu asko lortu dugu. Eduki sendoak eta askotarikoak jaso ditugu.• Jatorri askotariko emakumeen bizi-baldintzen, gizarteratzeko aukera eta zailtasunen eta dituzten sareen |

joatean, irekitasunetik eta malgutasunetik eraikitako bidea elkarlanean irudikatzea.

- Emozioetatik asko izan duen prozesua izan da, segurtasun ezak, ilusioak, desirak, ahizpatasuna, beldurrak eta grinak presente egon dira uneoro.
- Gauza askotan asmatu dugu, besteak beste, ekintza-komunitarioa praktikara eramaten, hitz egiteko eta ezberdinen arteko espazio seguruak sortzen, bakoitzaren errealitateak errespetatu eta ulertzen, botere-harremanak lausotzen, entzuketa aktiboa lantzen, pertsonala politiko egiten, ahalduntze pertsonal eta kolektiboak ahalbidetzen, parte-hartze soziopolitiko handitzen, aurreiritziak gainditzen edota hizkuntzen kudeaketa egoki bat egiten.
Hala ere, badira hobetzekoak, besteak beste, badiarelako parte hartu ez duten hainbat herrialdetako emakumeak.
- Prozesua bera jatorri askotariko emakumeentzako bizi-prozesu sendoa izan da. Ikusiak eta entzunak izateak balio handia eman die beren herritartasunari, ahalduntze pertsonal sendoak bizi dituzte, batez ere, espazio publikoaren erabilerari lotuta; euskararekiko atxikimendua handitu da prozesuan; beren sarean handitzeko aukerak eskaini dizkie eta udalarekiko gertutasuna eta konfiantza handitu da.
- Sentsibilizaziorako aukerak ere eskaini dizkigu prozesuak, oro har, bestelako kulturekiko ditugun aurreiritzien inguruan lanketa sakonak egiteko edota pertsonala politikoa dela ikusarazteko.

inguruko informazio zehatza lortu dugu.


- Jasotako informaziotik hemendik aurrerako bide-orri eta ekintza plan zehatzak garatzeko aukerak handiak dira.

7 DIAGNOSTIKOA ETA EMAITZAK


7.1 Segurako datu demografikoak

Azken hamarkadetan euskal gizarteak bizi duen aldaketa demografikoak paradigma berrien aurrean jarri gaitu errealitate demografikoari erreparatzen badiogu. Udalerrien biztanleriaren profila geroz eta anitzagoa bilakatzen ari da, besteak beste, jatorriari erreparatzen badiogu. Migrazio prozesuak geroz eta ohikoago bilakatzen ari dira mundu globalizatu honetan eta pertsonen fluxu honek askotariko errealitate eta pertsonen arteko bizitzak gurutzatu ditu. Segura herri txikia izanik ere ez dago errealitate honetatik at eta Eustatek 2022an kaleraturiko datuen arabera, bere biztanleriaren % 8,9 atzerria jaiotakoak dira.


Biztanleria jaioterriaren arabera. 2022



Azken urteetako bilakaerari erreparatzen badiogu, 2018an beheranzko joera hartu zuen pertsona etorkinen fluxuak, mundu mailako pandemia egoerak eragin zuzena izan du horretan, bada, 2022an azken 5 urtetako etorkin kopuru handiena iritsi baitzen Segurara. Sexu aldagaiari erreparaturik, emakumeen fluxua handiagoa izan da 2019-2021 urteen artean eta gizonak gailendu dira 2018 eta 2022an.



2023an Seguran erroldaturik dauden pertsonen datuak aztertuta, jatorri askotariko emakumeak 22 herrialde ezberdinetatik etorriak direla ikus dezakegu; komunitaterik handienak Portugal, Pakistan, Maroko eta Kolonbiako emakumeen osatzen dutelarik.



Bada, Segurako bizitzan zein kaleetan jatorri, ohitura, kultura eta hizkuntza askotariko pertsonak elkartzen dira. Testuinguru honetan, arreta berezia jarri nahi izan diogu jatorri askotariko emakumeek Seguran bizi duten errealitateari. Urte askotan zehar, migrazio-prozesuen eta helmugako herrialdeen subjektu pasibo edo bigarren mailako subjektu gisa hartu izan dira emakumeak. Ondorioz, jatorri askotariko emakumeak ikusezin egin dituen gizartea produzitzen jarraitu dugu urteetan zehar, helmugako herri eta hirietako gizarteetan egiten duten ekarpena ezkutatu, bizi dituzten errealitateak eta beren gizarteratze prozesuak oztopatu. Jatorri askotariko emakumeek, helmugako herrialdera iristen direnean, egoera sozioekonomiko berriei aurre egin behar izaten diete, eta horrez gain, haientzat arrotzak diren beste kultura, tradizio, arau, lege eta balio batzuekin egiten dute topo. Horrek esan nahi du egoera soziokultural eta psikologiko berri horretara moldatzeko ahalegina egin behar dutela. Testuinguru honetan, Segurako Udalak jatorri askotariko emakumeen errealitateetara gerturatzeko prozesua garatu du emakumeek Seguran duten paper aktiboa eta egiten duten

ekarpenari balioa emateko, udala eta herritarren arteko zubiak eraikitzeke eta jatorri askotariko emakumeen gizarteratze eta elkarbizitzarako prozesuak hobetzeko helburuarekin.

7.2 Bizi baldintzak

Jatorri askotariko emakumeen bizi baldintzak Seguran askotarikoak badira ere, antzekotasunak topatzen ditugu hainbat alderditan. Aipatu behar da, prozesuan parte-hartu duten emakumeak ez daudela pobrezia eta bizi baldintza gordinetan, naiz eta badakigun eta hainbat testigantzek hala baieztatu dute prozesuan zehar, jatorri askotariko emakume askoren egoera sozioekonomikoa kezkarria dela baita Seguran ere. Hala ere, oinarritzko bizi-baldintzak aseta dituzten jatorri askotariko emakumeak izan dira nagusi prozesu honetan.

Bizi-baldintza ekonomikoei erreparatu ezker, prozesuan parte hartu duten emakumeen errealitateak oso parekoak dira. **Gehienak etxeko eta zaintza lanetan egiten dute lan**, ordainpekoak diren eta ez diren. Bi profil identifikatu ditzakegu haien artean: norberaren familia eta etxeko zaintzen ardura osoa duten eta "etxeko andre" lanetan diharduten emakumeak eta besteren kontura (beste familien edota eraikinen zaintza eta garbiketa) lan egiten duten zaintza-lan ordainduetan dihardutenak. Errealitate honek EAEko eta, oro har, mundu mailako, zaintza-lanen egoeraren argazki orokorrari erantzuten dio. Bada, zaintza-lanak familien erantzukizun nagusia izaten jarraitzen dutela, doan zaintzeko denboraren bidez eta zaintza erosteko diru bidez; lan hau, gainera emakumeengan dago ehuneko handi batean (EAEen eremu pribatuan egiten diren etxeko eta zaintza lanen %67,2a emakumeek egiten dute¹). Bestetik, Etxeko langileen sistema berezian afiliaturiko langileen %96,13a emakumea eta %43,34ak espainiar estatutik kanpoko jatorria du². Emakume migratzaileak gehiengo den sektore honetan, Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliaturiko langile kopurua baino langile gehiagok egiten dute lan. Ezkutuko ekonomia oso zabaldua dago, migraturiko langileen egoera administratibo irregularragatik edota Gizarte Segurantzaren alta ez zaielako ematen, enpleatzaileek gastua aurrezteko. Eremu pribatuan egiten diren zaintza lanen ardura nagusia emakumeena izateaz gain, zaintzari loturiko etxetik kanpoko enpleguetan emakumeak dira nagusi. Hori dela eta, sektoreek feminizatuak direla esaten da. Kontzertatuta dauden Helduen Egoitzetako langileen %84,13a emakumea da: Zerbitzu sozialetako langileen %68,22a emakumea den bitartean, zerbitzu pertsonalak (zaintzaileak, etxeko laguntzaileak...) eskaintzen dituzten langileen %84,33a da emakumea. Azkenik, adierazgarria da ere 2023.urtean Hego Euskal Herrian 186.800 pertsona zeuden etxeko lanetara emanda, lan bila aritu gabe eta horietatik %87,97a emakumeak ziren, zehazki, 163.328 emakume. Pertsona hauek guztiek etxeko lanetan jarduten dute, inolako aitortza sozial zein ekonomikorik gabe, bizitzak aurrera egin dezan ezinbestekoak diren lanetan.

Prozesu honetan parte hartu duten emakume hauen kasuan ere, guztiak **zaintza eta etxeko lanetara dute mugaturik lan egiteko aukera**: *"Con el tema del trabajo, a las de fuera sé que a muchas no les dan ni la oportunidad. El empleo se limita a la limpieza, cuidados, trabajo doméstico. Ahora nos llaman asistentas personales"; "vine a trabajar como cuidadora de una mujer mayor"*. Lan-aukera mugatuaz gain, gainera, zaintza eta etxeko lanen esparruan bizi dituzten **lan-baldintza kaxkarrak agerikoak** direla ikusi ahal izan dugu: *"Pero en Segura no hay nada, no puedes cotizar. Algunas tenemos grandes dificultades para conseguir contratos, buenas condiciones laborales"*. Jatorri ezberdinetako emakume izateak lan aukerak mugatzen ditu eta hainbatetan "kanpotik etorritako"

¹ Ikusmiran, egoeraren azterketa 14. Zaintzak Bizitzaren sostengurako ezinbesteko lanak prekarizatuta daude. 2023ko azaroa, Iparhegoa, Ikasketa Sindikaletarako Fundazioa.

² Ibidem

pertsona izate hutsak zuzenean atek itxi izan dizkiotela aipatu dute batzuek: *“Con el tema del trabajo, a las de fuera sé que a muchas no les dan ni la oportunidad”*. Era berean, ordaindu gabeko zaintza-lanetan diharduten emakumeen testigantzek ere zaintzaren aferaren dimentsioa eta hauen birbanaketa justu baten beharraren ideia indartzen du: *“Los hombres trabajan fuera, nosotras cuidamos de nuestros hijos, eso te quita tiempo para tomarte un té con tus amigas”*. Hala ere, modu eta forma ezberdinetan kultura orotan erreproduzitzen den genero rol eta estereotipoei loturiko zaintza-lanen banaketa honen aurrean emakumeen **estrategia** eta ahalduntze ezberdinak azalerau dira: *“es cultural, en marruecos los hombres no hacen trabajos de casa, aunque si les piden si hacen. Tenemos estrategias para que hagan”*.

Prozesuan parte hartu duten udal-langileek orain arte azalduko ideiak berretsi dituzte, bada, enplegua zaintzaren eremura mugatzen dela eta hizkuntza, askotan, muga handi bat dela Segurako pertsonen zaintzari loturiko lanak eskuratzeko.

Hausnarketa ezberdinen artean, **emakumeentzako lanerako aukerak Seguran izandako bilakaerak** hartu du tokia. Migrazio prozesuetan historikoki gizonak izan dira enplegu bila mugitu diren subjektuak. Industria, eraikuntza eta antzeko lan-aukerak izan dira beren prozesuan helburu, emakumeak gizonen itzalpean migratu izan dutelarik. Lanaren banaketa sexual klasikoak eragin zuzena izan du baita migrazio prozesuetan, lan produktiboa gizonen eremu bilakatuz, emakumeak lan erreproduktibora (ordaindu gabeko lanetara hain zuzen) mugatuz. XX. Mendearen bigarren erdian, emakumeen lan produktiboaren merkatura igaro zirenean, lan erreproduktiboaren (zaintza eta etxeko lanen) birbanaketa berrantolatze beharrak, jatorri askotariko emakumeengan utzi du karga horren ehuneko handi bat. "Emakume migratzaileak eta zaintza-lanak: etxeko sektorearen eraldaketak Espainian" aurkezten digun ondorengo taulan modu argian adierazten digu emakume migratuen presentzia zaintza lanen esparruan.

TAULA 3: Etxeko langile eta pertsona zaintzaile gisa lan egiten duten langileen bilakaera, Espainia 2008-2017 (milatan)

| | 2008 | | 2013 | | 2017 | |
|---------------------------------|---------|--------------|---------|--------------|---------|--------------|
| | Guztira | Migratzailea | Guztira | Migratzailea | Guztira | Migratzailea |
| Etxeko pertsonalak | 549,6 | 336,9 | 477,6 | 301,2 | 452,0 | 287,5 |
| Etxeko zaintzaile profesionalak | 103,8 | 61,1 | 112,6 | 68,7 | 113,2 | 69,0 |
| Guztira | 653,4 | 398,0 | 590,2 | 369,9 | 565,1 | 356,5 |

Iturria: Diaz Gorfinkiel eta Martínez-Buján (2018)


Testuinguru berri honetan **migrazio prozesuen feminizazioaz** hitz egin dezakegu. Eta hala adierazten dute prozesuan parte hartu duten emakumeek ere: *“antes no había trabajo para mujeres ni en la limpieza, nosotras sola en casa cuidando y solo trabajan maridos. Todos los trabajos que salían”*. Migrazio prozesu hauek lan egiteko behar eta gurari loturik daude gehienetan, familiaren biziraupena eta bizi-baldintza duinen bilaketa horrekin gurutzaturik, ia beti: *Yo vine con la mentalidad de trabajar y sacar adelante a mis hijos*.

Zaintzari loturiko lanak eskuratzeko bide ezberdinak izan dituzte jatorri askotariko emakumeek, oro har, **ahoz ahokoa** izan da biderik eraginkorrena. Herri txikiek duten gertutasun horrek aukerak

irekitzen ditu halako lanak lortu ahal izateko: *“pero andábamos por pueblos diferentes para abrirse puertas, conocer personas. Conocernos en el sentido de saber de dónde eres, que sabes hacer, que estas dispuesta a hacer: limpieza, cuidar personas, manicurista. Poco a poco dio lugar, una persona me dio opción a hacerle la manicura y el boca a boca a ayudado. No estable como yo quería, pero, bueno, nos han ido saliendo cosas para independizarnos, seguir el curso de vida que quiere uno cuando ya se tiene un hogar”*. Gutxiengo bat bada ere, badira udaletxeak eskainitako etxez etxeko zerbitzuetan lan egin dutenak: *“El ayuntamiento me dio trabajo cuidando personas mayores cubriendo bajas”*.

Bizirauteko aukerak badira Seguran, naiz eta gizarte osoan gertatzen den moduan, jatorri askotariko emakumeek dituzten **lan-baldintzak eta -aukerak eskasak eta gogorak** diren. Bizi-baldintzen inguruan ari garen honetan, laguntza publikoen inguruko aferaz hitz egitea ezinbestekoa zaigu. Arestian egin dugun moduan, Euskal Behatokiaren azken ikerketak EAEko gizartearen pertzepzioek errealitate honen egiturazko izaera ikusarazten laguntzen digu. Euskal Herritarrei zenbait zurrumurru aurkeztu dizkiete, beren udalerrian edo auzoan gehien entzuten direnak adierazteko eta estereotipo zabalduena honakoa izan da: *“gizarte-laguntzetatik bizi dira eta neurritz kanpo erabiltzen dituzte”* (% 72) eta ondoren, *“immigrazioarekin delinkuentzia areagotu egiten da”* (%47,9).

Zure udalerrian edo auzoan gehien entzuten diren zurrumurruak (erantzun iradokia, %)



Prozesuan zehar ere, ikuspegi eta esperientzia ezberdinak jaso ditugu alderdi honetan, oro har Hego Amerika eta Portugalgo emakumeek laguntza publikorik eskatzeko joera txikia adierazi dute. Bada prozesuan parte hartu duten hainbat emakumeren artean ere, **laguntza publikoak lan egin nahi ez duten pertsonak jasotzen dituztenaren aurreiritzi** partekatu bat. Gainera, jatorri zehatz batzuetako pertsonak aukera gehiago dituztenaren ideia nagusitzen da haien artean: *Hay gente que se acostumbra y no quiere trabajar, y le dan y le dan. Tienes que buscar trabajo, no te acomodas, tienes que dar algo. Hay gente que vive así*. Emakume musulmanen artean, laguntza publikoen inguruan **informazio falta** nabaria dela aipatu dute: *Alguna de las mujeres no sabía que la guardería era gratis. No tienen información sobre muchas ayudas que ofrecen la administración pública*.

Bizi-baldintzen alorrean **etxebizitza** izan da errepikatu den beste alderdietako bat. Egungo gizartean gailentzen den arazo nagusietako bat da etxebizitza-eskubidearena, alokairua eta etxe-bizitzaren prezioen etengabeko gorakadak zaildu egin du asko egoera eta, testuinguru honetan ere, pertsona zaurgarriek pairatzen dute egoera larriena. Baldintza ekonomiko zailek ez ezik, etxebizitzaren jabe batzuek izan dituzten jarrera arrazistak ere salatu dituzte batzuek: *“no les alquilan las casas por ser extranjeras”*. Udal langileen artean ere etxebizitzaren gaiak sortzen dituen arazoez hitz egiteko aukera izan dugu eta orain arte aipaturiko ideiak berretsi ditugu: *“komunitateak indar handia dute, belaunaldiak ere. Etxebizitza, seme alaba asko eta marokoarrak dira bizi baldintza kaxkarrenetan bizi direnak. Batzuk ez dute bertako nazionalitatea, ez dute egoitza baimena, laster iritsiko da”*.

Beraz, jatorri askotariko emakumeen bizi-baldintza ekonomikoak bereziki zaintza-lanen bidez asetzen dira. Migrazio prozesuan feminizazioa eta zaintza-lanen prekarizazioak jatorri askotariko emakumeen egoerak zaildu eta gogortzen dituela ikusi dugu. Bestetik, behar ezberdinak dituzten pertsonentzako dauden laguntzak jasotzeko aurreiritzi eta korapiloak sortzen ditu Seguran ere; eta etxebizitzaren gaia arazo larria da, baita ere, jatorri askotariko emakumeen artean. Prozesuan parte hartu duten emakumeek bizitzeko oinarrizkoak diren beharrak asetuz baldin badituzte ere, kontziente gara jatorri askotariko emakume zaurgarrienen errealitateak ez direla dokumentu honetan islatzen eta badirela pobrezia eta bizi-baldintza oso gogorretan bizi diren hainbat emakume. Haien ahotsak, era orokor eta sotil batean izan bada ere, ekarri dituzte prozesuan parte hartu duten hainbat emakumek, baina egoera honi erantzuteko beharra argia da.


7.3 Gizarteratzea

Nork bere herrialdea utzi eta gizarte berri batean tokikotzea jatorri askotariko pertsonen eta helmuga-herrialdeetan bizi direnen arteko elkarrekintza eta bat-egite prozesuak izaten dira. Prozesu hauetan nork bere identitate, kultura, sinesmen eta ohiturak mantendu eta helmuga-herrialdekoekin uztartuz elkar-bizitzeko ariketa egitea ez da erraza izaten. Segura, herri txikia izanik jatorri askotariko pertsonentzako gizarteratzeko erraztasun eta aukera asko eskaintzen ditu. Hala ere, badira nortasun handiko herri txiki izateak berarekin dakartzan zailtasun eta arrakala nabariak. Immigrazioaren Euskal Behatokiak atera berri duen Barometroa azterketan jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak jaso ditu EAEn. Azterketa honek prozesu honetan jasotako bizipen eta esperientziei marko orokor bat emateko aukera eskaintzen digu.

Bizikidetzaz eta harremanaz galdetuta, euskal gizarteak udalerrietan eta auzoetan hautemandako bizikidetzaz hobetu egin da azken urteetan, eta batez besteko balorazioa 6,77 puntukoa izan da 2023an. Hala, iazko aldean atzera egin den arren, gero eta hobe da atzerritar jatorriko herritarren eta bertakoen arteko giroaren pertzepzio subjektiboa. Ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean, antzeko iritzia dute.

Udalerriko edo auzoko bizikidetzagiroa eta harremanak

Otik (oso txarra) 10era (bikaina) bitarteko puntuazioa



Bide horretan, prozesuan parte-hartu duten emakumeek Segurarekiko eta bertako herritarrekiko **atxikimendu** handia adierazi dute:

“Cuando necesitas ayuda te ayudan emocionalmente también. Mi hija se apuntó a la montaña, nosotros no vamos, trabajamos y siempre le llevan, son de aquí, hay gente muy buena”.

“Segura también que es muy acogedor, muy verde, y la gente es muy acogedora, muy tratable”.

“Bien, ya llevo aquí tantos años más en España que en Portugal, soy más de segura que de Portugal. La gente, todo lo que más me gusta”.

Udal langileek ere jatorri askotariko emakumeek Seguran gizarteratzeko daukaten aldeko jarrera nabarmendu dute: *“beraien identitate eta pentsaerak mantenduz, euskal gizartean bizitzeko gogo handia dute. Horrek edozein egoerara moldatzeko gaitasuna izatea ekartzen die”.* Hala ere, prozesuan zehar kontziente izan gara parte-hartu ez duten jatorri askotariko emakume asko bizi direla Seguran eta euren errealitateak, askotan, ez duela kontakizun honekin bat egiten. Badira **bizi-baldintza oso gogorretan bizi diren hainbat emakume** eta gizarteratze prozesurik bizi ez dutenak, isolaturik bizi direnak eta herritarrekin inolako elkarbizitzarik ez dutenak:

“En general la gente de Segura nos arropa muy bien, pero hay mujeres muy apartadas, muy solas”.

“Siempre que hablo intento hablar en nombre de las que no hablan, para ellos la integración es ser como ellos. Y no”.

Errealitate anitzak topatzen ditugu jatorri askotariko emakumeen artean, lan honetan parte-hartu ez duten emakumeen errealitateak, pentsa dezakegu, errealitate gordinenak eta isilduenak izan daitezkeela. Prozesuan ez egotearen arrazoi nagusietako bat, bereziki emakume marokoarren

artean, hizkuntzaren ezagutza falta izan da, baita, beren komunitate itxira mugaturiko bizitza izatea, hau da, Segurako herria zein udalarekin harreman eta gertutasun falta izatea. Finean, bizi-baldintza gogorretan bizirauteak, ahalduntze pertsonal eta kolektiboaren beharrak eta parte-hartze sozial eta politikorako mugak hizkuntzarekin gurutzatzen diren gorputzak falta izan ditugu.

Gizarteratzeko zailtasunei tiraka, bada emakume batzuen artean errepikatzen den ideia bat, **prozesua aldebikoa izan behar duen honetan interes eta indar nagusia jatorri askotariko emakumeek egiten dutela**: “los de segura te dirán muchas cosas, *el porcentaje más grande de integración tenemos que hacer nosotras, pero, al final nos necesitamos unos a otros*”.

Errotzea ulertzeko funtsezko elementuetako bat amatasuna izan da, eta Seguran hainbat jatorritako familiak integratzeko zutabeetako bat: “*Zure txikiak ondo daude ikusteak zu lasaitzen zaitu*”. Prozesuan parte hartu duten emakume guztiak amak dira, eta Segura leku idiliko gisa ikusten dute haurrak integratzeko. Haurren lasaitasun eta zoriontasun hori emakume migratzaile gisa integratzeko beste edozein zailtasun edo oztoporen gainetik nagusitzen da.

“La maternidad, un factor positivo para quedarse a vivir en Segura. La seguridad para los niños, se han acomodado muy fácil se ve la felicidad a ellos de estar aquí, se les ve felices”.

“Nosotras cuando nuestros hijos están ben nosotras estamos bien”.


“Los hijos para socializar no tienen problemas: “ni segurarra naiz” 8 urterekin esaten du: “Se que tú eres musulmán quiero a los abuelos, pero yo soy de segura”.

Familiaren zaintza eta amatasunak lotura sendoak eratzen ditu emakumeen artean, Segura haien haurrentzako bizileku egokia den heinean egiten du haientzat bizigarri ere. Hala ere, egungo gizartean zaintzak eta etxeko lanek duten balio urriaz kontziente dira gehienak: “*No se valora el trabajo de las madres*”. Gizarte osoaren sostengu diren lan ikusezin eta ordaindu gabeez zuzenean eragiten dute emakumeen denboraren erabileran. Beren denbora librearen inguruko hausnarketak eta esperientziak ordea anitzak dira, bada denbora falta nabaria adierazi duenik: “*Los hombres trabajan fuera, nosotras cuidamos de nuestros hijos, eso te quita tiempo para tomarte un té con tus amigas*”. Baina, kontrako bestelako bizipenak ere azaldu dira: “*Tener hijas e hijos no te impide que salgas. No me supone no poder hacer mi vida el tener hijos*”.

Familiak erabiltzen dituzten udal eraikin eta zerbitzuak badira, modu batean edo bestean, jatorri askotariko pertsonak gizarteratzeko giltzarri. Hala adierazi dute udal langileek, adibidez, **liburutegiaren** erabileraren inguruan: “*egunero haurrak eskolatik liburutegira joaten dira 19:00rak arte, liburutegi zain baino gehiago dira. Etxeko lanak egiten dituzte, laguntza eskaintzen du etxeko lanak egiteko, ikasturte osoan egunero-egunero*”.

Denboraren erabileraren ildoari tiraka jatorri askotariko emakumeen gizarteratzearen gaineko hainbat errealitate ikusarazi ditugu prozesuan zehar. **Espazio publikoaren erabilerak** gako asko ematen dizkigu. Norbanako zein kolektibo jakinek ingurune batean sortzen duten erantzun eta inpaktu soziala askotarikoa da, baina, oro har, **arrazakeria eta aurreiritziak presentzia** nabaria salatu dute baita Segurako kale eta espazio publikoetan ere. Ikuspegik argitaraturiko Barometroan estereotipo eta zurrumurruen aurrean duten iritziaz galdetu zaio Euskal jendarteari eta sailkapenari erreparatzen badiogu, aurreiritzietan “onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik”, “segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu” eta “matxismoa areagotzen du” ideiak gailentzen direla ikus dezakegu.

Estereotipo eta zurrumurru nagusien sailkapena (%)



g6a, 6b, 6g, 6h, 6i, 6j, 6k, 6l, 6m, 21d, 21e, 21f, 21j, 21m

Prozesu honetan zehar tarte hartu dugu gizarteak beste kultura, herrialde eta ohitura batzuetako pertsonekin ezartzen dizkigun **aurreiritziak** lantzeko. Aurreiritziak errealitatearekin bat datozen ez dakigun sineste gisa definitu ditugu. Aurreiritzien inguruko solasaldian hainbat esperientzia eta bizipen partekatu ondoren, kolektibizatu eta hauen gaineko irakurketa egiteko tarteak ere izan ditugu. Jendeak herrian egiten dituen komentarioak edota zurrumurruak direla ikusi dugu taldean, ideia orokorrak, hala nola emakume latinoak oso pinpirinak direla edo euskaldunek ez dakitela dantzan. Jarri ditugun adibideak ez dira kaltegarriak, baina badira zurrumurru batzuk gure bizitza eta egunerokoan kalte eta estigma handia sortzen dutenak: “*estoy por mis hijos tengo ke aguantar, estoy integrada porque hago vista gorda, aguanto muchas cosas, no porque estoy a gusto*”. Errealitatearekin bat ez datorren hiztegi bat dela argi ikusi dugu, gizarte-laguntzen afera, adibidez sineste horietako askorekin lotuta daude: “*Como somos de afuera, así se refieren a nosotras. Como eres de afuera seguro que tienes muchas ayudas, como tienes un hijo. Es así como nos llaman. Nos comparan con otros. Creen que porque como de afuera recibimos ayudas y que por eso seguimos viniendo más*”. Aurreiritziak guztiz lotuta daude euskal gizarteak jatorri askotariko biztanleen kultura-ereduen aurreko tolerantzia-mailarekin. Barometroak erakusten digun argazkiak bide ematen digu gizarteratze prozesuetan Seguran topatu ditugun zailtasun eta hutsuneek gizarte osoan dauden errealitate egiturazko gisan ikusteko. Bada, euskal biztanleriak jatorri askotariko pertsonak hemen


finkatzearekin edo kultura-eredu batzuei eusteari loturik, gehien kontuan hartzen diren eta gaizkien toleratzen diren bost alderdi nagusitzen dira: haien ikastetxe pribatua izatea, jatorrizko herrialdean bezala janzteak, haien erlijioetako tenpluak eraikitzea, haien artean beraien hizkuntza erabiltzea eta plaza eta espazio publikoa hartzea.

Seguran ere, jatorri askotariko pertsonen ohitura sozial, kultural eta erlijiosoen gaineko **tolerantzia-maila** ez da beti behar bezain altua. Bestelako ohiturak dituzten emakumeek badute bizikidetzaren honetan errespetuaren eta nork bere alea jarri behar diren gaineko kontzientzia nabaria:

“Para el tema de integración es fácil, respetarnos, llevarnos bien; yo respeto las culturas de segura, no puedo participar por la religión, pero lo respeto semana santa, no digo ke asco el cerdo... les enseño a mis hijas a respetar la cultura y costumbres que nosotras no practicamos”.

“Yo he trabajado con una señora 7 años en Zegama, yo no entro a la iglesia al funeral espero fuera, cuando acaben ellos saludo fuera”.

Atzeritar jatorriko biztanleen kultura-ereduen aurreko tolerantzia-maila (%)



Era berean, errealitate honen eraginez beren egunerokoan sortzen diren hutsuneak oso identifikatuta dituzte:

“Segura mucha costumbre de mucho bar, mucha plaza, mucha cerveza, a mí no me gusta ese barullo”.

“No pueden comprar carne, no hay opción de consumo de halal, hay chorizo halal. Tienen que ir a Zumárraga y a Beasain, no podemos ir a la carnicería de Segura”.

Askotariko ohitura, kultura eta festa elkarbizitzen dira Seguran ere, baina, jatorri askotariko emakumeek aitortu dute beren herrialdeetako festa eta ohiturak Seguran bertan disfrutatzea ia ezinezkoa zaiela:

“Cuando llegan las fiestas no las celebramos como se vive las de nuestro país. A su vez, tampoco vivimos las fiestas de Segura como se debe, es como si no pudiéramos celebrar ninguna de las dos celebraciones al cien por cien”.

“Los cumpleaños son una fiesta, y si es el 15 cumpleaños de las niñas se hace una gran celebración, es una emoción, hay mucha fiesta, mariachis en nuestra tierra, pero aquí no lo hacemos así”.

“Nuestros propios cumpleaños se celebran igual, aquí el cumpleaños invita, nosotras no; tienen que consentirnos regalarnos no hacemos nada, no cocinamos, mi marido me dice que hacemos cosas muy raras (el marido es vasco). Compartir comida, se miman, se consiente. Si esta más viejo más se le consiente”.

“Nos cohibimos mucho para celebrar las fiestas o eventos incluso cumpleaños como lo hacemos nosotras. Se nos hace más fácil hacerlo como lo hacen aquí, lo rigen los coles, las familias, lo hacemos a gusto, pero nos cortamos con nuestras costumbres, no podemos imponer. Es más fácil”.

Era bereizgarrian aipatu dugu prozesuan **Ramadamaren** ospakizuna. Emakume musulmanek beren bizitzako ezinbesteko eta oinarrizko ohitura den honi Seguran ere bide emateko beharra azaldu dute, ospakizun hau bere zabalean antolatu eta bizitzeko eskubidea aldarrikatu dute:

“Como manasketa tenemos una comunidad en ramadán. En el iftar nos juntamos las mujeres, cada una lleva algo para comer. En nuestros países de origen nos juntamos, comemos las mujeres eso falta aquí. Cuando acaba el ramadán también nos juntamos compartimos regalos, comemos, pero aquí no tenemos eso y se echa de menos”.

“El iftar es un día muy especial y necesitamos que los y las niñas lo vivan, lo disfruten y lo celebren; queremos que vivan esta fiesta de verdad”.

“Necesitamos un espacio físico para ello, a la vez que seguir creando redes entre las mujeres musulmanas para poder recuperar estas costumbres también en Segura”.

Kontran, Segurako **kultur ekitaldi edota ohiturak** aukera on gisan ere ikusi dituzte askotan, elkarguneak sortu eta kultura askotako ohiturak nahasteko:

“Cuando montamos la asociación pensamos en San Juanes, hemos hecho comidas pakistaníes, marroquíes, vascos y asturiano; hicimos una comida todos fue muy bien”.

“Las fiestas ayudan para conocer gente, para hacer cuadrilla yo tengo cuadrilla por eso. Está bien”.

“Vemos lo que hay con las tradiciones de aquí: hubo un año que participamos cada persona su país ponía su comida, eso es bonito. A mí me encantaría”.

“Las sociedades están muy bien, yo uso mucho porque el café bale menos. Somos socias, ahora está mejor que antes, ha bajado, hay mucha plaza libre, hay mucha posibilidad. Si eres socia puedes llevar a amigos”.

Udal-langileek jatorri askotariko emakumeekin egindako jarduera kultural ezberdinak partekatu dituzte, badaude esperientzia onak Seguran kultur arteko espazio eta jarduerari erreparatzen badiegu:

“Iparra Hegoak egin izan ditu ekimenak, janariaren bueltan”.

“Kultura aldetik ekitaldiak antolatu izan dira. Pakistandarrekin egin genuen oso polita, deitu egin nuen, horrelakoetan saiatzen naiz deitzen, inplikatu beraiek ere; komunikatuak ez dituzte ulertzen euskaraz direlako”.

“Kultur-aniztasuneko ekintzetan nire filosofia da haiei zuzenean interpelatu eta gonbidatzea. Zu bazara gai eta egin”.

“Janaria 2014an in genuenean oso polita izan zan, lan handia egin genuen hori prestatzeko, arropa, informazio panelak, janaria.. lanordu asko izan ziren”.

Ohituren aferari jarraiki, **jarduera fisikoaren** gaiak ere hartu du toki prozesu honetan. Kirola edo ariketa fisikoa egiteko ohiturak ez dira, agian, euskal gizartean emakumeek dituzten berak. Antolaturiko ekintzetan, kiroldegietan edota taldeetan ariketa fisikoa egiteko ohiturarik ez dute prozesuan parte hartu duten emakumeek, bestelako esperientziak topatzen ditugu, askotan espazio publikoaren erabilerarekin gurutzaturik:

“No me hace falta correr, yo no hago deporte como tal no paro, entre trabajo y cuidados”.

“Ni siquiera pienso en hacer deporte. Hombres y mujeres juntos en el gimnasio, no lo pienso, para que no me juzguen”.

“Para nosotras es raro compartir la piscina porque estamos acostumbradas a tener horario específico para mujeres y niños”

“Andar por el rio, nos vemos cuando vamos por ahí, que hacía tiempo que no me veía. Ya no coincidimos, ejercicio andado por el rio, yo suelo ir más por la tarde”.

“Ejercicio en casa, los deberes de la casa, escuchar música y hacer los deberes de la casa”.

“Me voy caminando hasta Beasain, ella también camina hasta Carrefour”.

“Paseo por el bidegorri, no hay bidegorri como el de Segura, tiene naturaleza, pasas por el río”.

Espazio publikoaren erabileran mugatzen duen beste elementuetako bat kotxea da Seguran. Zerbitzu publikoaren erabilera gailentzen da jatorri askotariko emakumeen artean, baina, honek traba asko dakartza askorentzat; besteak beste, Halal elikagaiak lortzea, prezio jasagarrietan erosi ahal izatea edota ikasketak zein lan ezberdinak lortzeko aukerak mugatzen dira.

“Me gusta mucho Zegama, a mí también me gusta mucho, acá vengo todos los días a trabajar, tengo unas rutinas aquí y haya. Transportarse en autobús que pasa cada 45 min no es fácil, hace un mes gracias a dios compramos un coche y se me ha facilitado mucho la vida. Antes por el transporte venias con el niño y perdíamos un bus, llegaba tarde para hacer todas las labores de casa, ahora me es mucho más fácil, le explicaba como moverse en autobús”.

“Tengo coche y me muevo en coche, a trabajar 2km voy siempre andando, a Carrefour en coche; aquí las tiendas son más caras”.

“La única opción para poder aprender castellano es irse a Beasain a la EPA pero está lejos para una clase de una hora; ir a Beasain, solo hay autobús que tarda media hora. Es difícil, dónde dejamos los niños, desmotiva, tardan mucho para una sesión de una hora”.

Lehen aipatu dugun moduan euskal gizartearen aurreiritzietan nagusitzen den hirugarren ideia **matxismoaren gorakadaren erantzule egitearena** da. Prozesu honetan zehar ere, jatorri askotariko emakumeek ideia hori berretsi dute. Bada, beren egunerokotasuneko praktika eta jarrera oro erlijio eta kultura matxistak gurutzaturik eta beharturik burutzen dituztenaren jazarpenen aurrean beren burua behin eta berriro justifikatu behar izan dute. Asko dira gorpuzten dituzten zurrumurruak:

“Nuestros maridos no nos maltratan, no bajan al parque y bajo yo, pero eso no significa que tengamos una relación de poder y maltrato”.


“En nuestra cultura cuidamos nosotras de nuestros hijos. Los maridos trabajan no cuidan, en el parque hay más mujeres, los hombres se avergüenzan, que el haga otras cosas nosotras estamos a gusto en el parque, ellos hacen otras cosas”.

“Lehen ez, orain bai bizitza lasaia bizki gustatzen zait; gustatzen zait parkean egon eta estoy con mis amigas, pero no significa que el marido no haga o me obligue. Nos ven así, nadie se interesa para entender”.

Aurreiritziek jatorri askotariko emakume guztiei eragiten badiete ere, jatorriko herrialdeak badu gizarteratzean eragin ezberdina. **Aurreiritzi eta tolerantziak** ezberdinak dira Hego Amerikatik, Europatik edo Afrikatik etorri. 2023ko Barometroan euskal herritarrei jatorri bakoitzak duen integrazio-mailari buruz galdetuta, ikusi dezakegu maila hori handiagoa dela bere antzekoenen eta kulturalki hurbilen dituen kasuan. Maroko, Aljeria eta Magreb edota Pakistango pertsonak integrazio-maila baxua dutenaren ideia nagusitzen da. Seguran aurrera eraman dugun prozesuan ere ideia hau gailendu da, gizarteratze prozesuak eta bizi-baldintzak egonkorragoak eta errazagoak izan dira Hego Amerikako emakume zein Europako emakumeentzat Maroko, Pakistan edo Afrika beltzeko emakumeentzat baino.

Nazionalitate nagusien integrazio-maila, sexuaren/generoaren arabera:

Otik (batere ez integratuak) 10erako (guztiz integratuak)





g41

Zailtasun gehigarrien artean, arestian aipaturiko bestelako **janzkeren inguruko tolerantzia falta** handiak hartzen du nagusitasuna. Emakume musulmanek beren janzkera dela eta bizi dituzten etengabeko epaiketa, zapalkuntza eta zigor sozialak kezka handia sorrarazten du. Behatokiaren datuei erreparaturik ere errealitate hau berretsi dezakegu. Euskal gizartearen gehiengo handi bati ez zaizkio egokiak iruditzen burka (% 77,9) edo nikaba (% 73,8), hau da, pertsonaren aurpegia estaltzen duten arropak. Bestelako janzkeretan tolerantzia handia bada ere, oraindik gizartearen erdiak ez du txadorra edo burkinia egoki ikusten.

Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak besteko janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritziz duzun jakin nahi genuke



Emakume musulmanek prozesuan zehar pisu handiarekin eta zentraltasun handiz jarri dute **beloaren** gaia mahai gainean. Seguran bazterkeria eta zapalkuntza arrazistaren oinarritzko zutabe eta gizarteratzeko aukerak mugatu eta ezinezko bilakatzen dituen elementu gisa:

“¿Por qué lleváis velo? ¿Porque hacéis ramadán? ¡Siempre vais con mucha ropa! No te cuestionan con malas intenciones, pero si injustamente. Eso nos choca, todos los años, todos los agostos siempre lo mismo”.

“Tenemos la fama de que el marido o el padre nos ha obligado a ponerlo, nuestros maridos no son machistas no nos obligan, hay muchos prejuicios, jende gaztea ere, irekiak direnak baina ez kasu honetan”.

“Entiendo que, si no estas acostumbrado en un primer momento entiendo, pero con el tiempo debería acostumbrarse, te juzgan y te ponen etiqueta para todo”.

“Solo ven el velo, soy una persona, tengo cerebro, tengo mi religión, tengo mi fe y no os voy a obligar a creerlo; somos amas, nuestros hijos están juntos, al verlos me da pena que tengan prejuicios”.

Gainera, epaiketak eta aurreiritzi hauek **areagotu egiten dira eremu publiko zehatz batzuetan**, hala nola igerileku publikoetan: *¿Tienes calor, tienes calor? ¿No te vas a bañar? Y ya no voy, me aburrí.*

Gizarteratzeko aukera eta hutsuneen azterketa honetan pisu nabaria izan duen elementuarekin amaituko dugu: **hizkuntza**. Aztergai hau begirada ezberdinetatik landu dugu prozesuan zehar. Alde batetik, Segurako udalak hizkuntzaren kudeaketari begira duen politikak sortzen dituen korapiloez

aritu gara. Udal-komunikazio guztiak euskara hutsean egiteak euskara menperatzen ez duten jatorri askotariko emakumeentzat zailtasunak sortu izan ditu askotan:

“Las cartas en castellano por favor. La realidad lingüística ha cambiado en Segura, antes no se hablado tanto y ahora sí. Se hacia la compra en castellano”.

“La carta de aquí, la política es hacer en euskera. Mis hijos me lo traducen, no me entero de nada”.

Antzeko egoerak ezagutu ahal izan ditugu, oraingoan administrazio publikotik haratago erlijio kristauaren **mezaren** eskaintzari loturikoak: *La misa había a las 11:30 en castellano y ahora no*. Hala ere, hizkuntzaren gaineko hausnarketen bidez jatorri askotariko emakumek **euskararen ezagutzak irekitzen dituen ateez jabetzera** eta beren hasierako gaitzespena gainditu eta euskarara gerturatzea eraman ditu. Euskara ikasitako jatorri askotariko emakume batek prozesuan zehar partekatu dituen esperientziek, elkar entzute aktiboek eta konfiantzazko giroan elkar ezagutu eta ulertzeko aukerak egin dute posible prozesuaren amaieran euskararekiko atxikimendu handi bat zabaltzea. Kontzientzia hartu dugu euskara ez jakiteak Seguran harreman ezberdinak garatzeko muga handiak dakartzala:

“Hay marroquíes que no saben castellano. no podemos estar juntas con las demás familias de Segura, a veces estamos traduciendo todo el rato, pero no es practico y posible a largo plazo, sino haces caso a unos y a otros no”.

“Hizkuntza ikasi behar dute, oso garrantzitsua da, beste emakume marrokiarrak ezin dute hitz egin euskara edo erderaz, eta nola elkartuko dira? Parkean eserita daudenean, beste herritarrek etortzen dira bere semeak gela berdinen daudenak eta ezin hitz egitean arrakala handia da, distantzia sortzen du”.

Era berean, eta prozesuan parte hartu duten emakume guztiak amak diren heinean, seme-alabei **eskolako** kontuetan, lagunartean edota aisialdian lagundu ahal izateko euskarak ematen dituen aukeren inguruan hitz egin dugu: *“por qué estoy estudiando euskera, porque en este país hablan este idioma, típico de este país; lo más importante para mis hijos, para ayudarles en los deberes, irekia egon behar dugu”*. Eragin handia du hizkuntzarekiko atxikimendua lortzeko prozesu honetan liburutegiaren erabilerak ere, hala aitortu dute udal langileek: *“informazio eske etortzen dira, eskaintzen diet txartela egitea, dohainik da. Eskatzen dute gaztelaniaz materiala, umeentzako materiala erdaraz zerbait badago baina saiatzen naiz euskaratik gauza erresenetik lantzen, irakurtzea bultzatzen ditut gurasoak euskarara gerturatzeko”*.

Bada **euskara ikasteko aukeren** inguruan ere asko aldatu dira pertzepzio eta iritziak. Euskara ikasteko klaseetan orain urte batzuk parte hartu zuten emakume asko ez ziren esperientzia on batekin irten: *Entramos en los cursos de euskera por medio del ayuntamiento, en el 2007. Nos explicaba todo en euskera que no entendía nada, pedimos que nos diera explicaciones en castellano. Nos dieron el titulo sin haber aprendido nada. Tenía ganas de aprender y me las quitaron, para memorizar; no entiendo porque ahora hay buenas experiencias*. Baina, egun egoera aldatu dela eta bestelako esperientziak ere badirela ezagutzeko aukera izan dugu prozesuan, gaur egun euskara klaseetara

joaten diren jatorri askotariko emakumeek bere esperientziak, ilusioak eta ikaspenak partekatu dituzte eta honek beste emakume askoren pertzepzioak aldatu ditu:

“La profesora, es abierta, conversa, es cercana, dispuesta a ayudarte donde necesites”

“Las personas que están ahora en clases de euskera están muy contentas, no solo por aprender idioma con cariño sino conocer la cultura vasca”.

Hala ere, **euskara ikasteko mugak** presente egoten jarraitzen dute, bada ekonomikoak edota mugikortasunari loturikoak: *“hay que pagar las clases de euskera y luego te devuelven el dinero, no entiendo porque hay que pagar si luego te lo devuelven, hay mujeres que por eso no van. Hay gente que no puede pagar y si no hay un mínimo de cinco no sale el grupo. Y tenemos que ir a otro pueblo a estudiar”.* Errealitate hau berretsi dute udal-langileek, euskara klaseen prezioek jartzen duten muga alegia: *“oztopo handi bat da ikasteko aukera ordainpekoa izatea, dohainik badira gehiago animatuko zira. Lehenik dirua jarri behar duzu eta ondoren itzuli egiten dizute. Diru kopuru handia da”.*

Ikasketa prozesuei loturik, euskara ikasteko behar eta aukerak azaleratu diren moduan, nork bere jatorriko ama-hizkuntza ikasi eta erabiltzeko eskubideak hartu dute toki prozesuan. Zehazki, emakume marokoarrei beren seme-alabei arabea erakusteko behar eta nahiak bultzaturik landu dugu gaia. Emakume marokoar batek arabiar-eskolak ematen dizkie bere borondatez emakume marokoarren haurrei: *“es una manera de mantener la cultura árabe con las y los más pequeños que de otra manera no podrían mantener la capacidad de escribir árabe”.* Eta oso eskerturik agertzen dira eskaera horren aurrean udalak izandako erantzunarekin: *El ayuntamiento nos ha cedido un local para ello y estamos muy agradecidas, es un recurso esencial para poder mantener vivas y presentes elementos identitarios de las personas árabes.*

Azken saioan jasotako aipuekin amaituko dugu hizkuntzarekiko atxikimenduak prozesuan zehar izan duen bilakaera, labor eta ezin-hobe ulertzen baita:

“Ante este cambio hay mujeres que hemos decidido aprender euskera”.

“Hay necesidad ahora para aprender euskera, sobre todo si los niños están aprendiendo en euskera y les quieres ayudar, hay que adaptarse y hay que aprender”.

7.4 Seguran ditugun sareak

Herritar orok gizarteratze eta bizi-baldintza duinak izateaz gain, ezinbestekoak ditu bere ongizatea eta integrazioa bermatzeko sare afektibo eta sozialak edukitzea. Izaki interdependenteak garen heinean zainduak izan eta zaintzeko oinarrizko beharra dugu bizitzako etapa eta eremu guztietan, bada, nork bere bizitokian harreman sare bat izatea ezinbesteko baldintza da herritartasun sendo bat garatzeko. Harreman sare horretan, jatorri askotariko emakumeek dituzten aukera eta zailtasunak aztertu ditugu honetan zehar.

Jatorri askotariko emakumeen **sare nagusia familia** eta haurren bidez eraikia da. Komunitate bereko familien arteko sareak nagusitzen dira, nahiko homogeneoak direnak. Familia eta haurrek eskaintzen duten sostengu sare honek bizirauteko oinarrizko harreman afektibo eta sozialak bermatzen baditu ere, ez dira gizarteratzeko eta Segurako komunitate zabaleko sarean integratzeko baldintza nahikoak sortzen. Espazioari dagokionez haur parkeak izaten dira sare hauen elkarguneak.

“En el parque cada etnia se junta entre ellas, vascos, pakistanís y marroquíes cada uno por su lado”.

“Las familias pakistanís se juntan, por un lado, debido al idioma (hablan kurdo) y las marroquíes árabe”.

“Cuando estoy sola no tengo problema de acercarme, pero si están las demás tenemos más problemas para integrarnos ya que son mujeres que no han entrado en la escuela de Marruecos tampoco, no conocen el idioma. Aquí no hay ayudas para que se integren este perfil de mujeres”.

Segurako **komunitate zabalean dituzten sareak, oro har, nahiko eskasak dira**. Segurako herritarrekin dituzten harreman sareez hitz egiterakoan hainbat pertsona gako identifikatu dituzte beren egunerokoan, besteak beste, eskoletako hezitzaile eta irakasleak, liburutegiko langilea edota euskara irakaslea. Ez dute Segurako herritarrekin harreman sarerik, jatorri askotariko emakumeen artean ere ez dute sarerik eraikirik, nork bere komunitate eta jatorriko pertsonekin eraiki du ingurua.

Azkenik, **udalarekin zein udal zerbitzuekin duten harremanaz** jardun dugu. Seguran denbora gehien daramaten emakumeek udalarekin izan duten harremanak bilakaera esanguratsua izan duela aipatu dute. Orain hamarkada batzuk zuten harreman hotz eta urrunekoa aldatzen joan da denboraren eta bertako langile zein ordezkari politikoen lanaren ondorioz:

“Cuando teníamos que pedir no nos dieron, cuando vinimos no teníamos la suerte que tienen ahora”.

“Yo fui una vez a pedir trabajo al ayuntamiento, y me dijeron “tú ya eres casada y vives como una empresa, tu marido que te dé”.

Egun udalarekin harreman ona dutela azaldu dute emakumeek, askotan, udala instituzio gisa baino egun alkatea den pertsonarekin gorpuztu da harreman hau:

“Con el ayuntamiento muy bien, no es solo por la buena relación que hay con la alcaldesa, también con servicios sociales, la asistenta. La relación es muy cercana y de mucho cuidado de parte del Ayuntamiento”.

Udal zerbitzuekin harremanak askotarikoak izan dira ordea. Batez ere, **Gizarte Zerbitzuekin** izandako esperientziak hartu dute toki prozesuan zehar eta askotarikoak izan dira bizipenak. Badira tratu eta jarrera txarrekin topo egin duten emakumeak; lana lortzeko aukeren eta baliabideen inguruan laguntza eskatzerako orduan jasotako erantzunek eta, oro har, hainbat emakumek jasandako tratu iraingarriak salatu dituzte:

“Dos cosas que me tocaron: “esto no es bolsa de empleo”, Servicios sociales, estás buscando un piso, porque te puedes organizar de tal manera que quieras para pagar piso sin tener contratos. “Esto no es una inmobiliaria”, es el lugar donde tienen toda la información, si necesitas información es donde acudes Servicios Sociales, te dan respuestas muy desacertadas. Las formas no son buenas”.

“Cuando tenemos mala experiencia no volvemos. Con el euskera, con los Servicios Sociales. ¿Para qué volver? ¿Para qué te sigan humillando? yo llegué hace tres años y lo sentí. Necesito información, no quería nada más y no me trataron bien”.

Hala ere, aipatu dugun moduan asko dira partekatu diren esperientziak eta prozesuan zehar udal zerbitzuekin esperientzia eta harreman osasuntsu eta adeitsuak partekatu dituzte jatorri askotariko emakume batzuek:

“En la administración, en cultura, cuando me acerqué al Ayuntamiento, fui a pedir trabajo, empecé a hablar con la chica, piensa que cuando tenemos un cambio brusco de cultura y de clima y de todo hay cosas dentro de uno que se los guarda y esta chica empatiza, entiende, escucha, te informa, es bonita para los niños. Que chévere. Que humano, encontrar estas palabras bonitas”.

Prozesu honetan parte hartu duten **udal-langile ezberdinek bizipen eta harreman gertukoak** adierazi dituzte jatorri askotariko emakumeekin:

“Detalle txikiak dira, baliabide ekonomiko txikiekin ohituta gaude lan egiten, jarri behar duzu bihotza gauza askotan”.

“Arlo profesionalaren ondorioz, laguntasun harremana dut. Astero bi aldiz elkartzen gara euskara ikasteko, eta tratua primerakoa da”.

“Urte asko daramatenekin oso harreman estua dut”

“Askotariko kultura, ohitura eta mundu ikuskera duten emakumeekin dudan harremana oso aberasgarria iruditzen zait. Urtean zehar elkar elikatu dugu kulturalki: nik euskal kultura erakutsi diet eta trukean, beraien kultura erakutsi didate, oso polita izan da. Horretaz gain, erlijioaz, politikaz, kirolaz... ere askatasunez hitz egin dugu (nahiz eta ikuspegi oso ezberdinak ditugun)”.

Era berean egoeraren argazki orokor bat ateratzeko jatorri askotariko emakumeek udal zerbitzu eta baliabideez egiten duten erabileraz hitz egiteko aukera izan dugu. Besteak beste, eskatzen dituzten laguntza moten inguruan:

“Gehienak lanean daude edo RGI edo ingresu minimo dute, horrekin bermatuta dute etxebizitza egokiago bat”

“Hego Amerikako emakumeak laguntzak eskatzen dituzte pilates, yoga edota euskara ikastaroetako informazio bila, haurren aisialdia udarakoa ere eskatu ohi dute, hizkuntza ez galtzeko”.

“Asko etortzen dira, laguntza eskatzea, “nora joan behar dut hau egiteko. Udala saiatzen da laguntzak ematen, bada janaria lortzeko ere”.

“Kontaktua handia izaten da, gero hasten dira askatzen eta ingurura mugitzen, badakite nora jo. Segun ze prozesutan dauden”.

Laguntza ezberdinen behar hauetatik sortzen diren hartu-emanek bide ematen dute jatorri askotariko emakumeen eta udal langileen artean gertuko harreman bat garatzeko: *“Aurrez aurrekoa bilatzen dute, beti esaten diegu zerbait behar badute zalantzak argitzeko deitzeko lasai, baina ez da eroso, ur mozketak eta abar bai dira ele bitan, baina, gurekin argitzen dituzte gutunak eta zalantzak”;* *“Detaile txikiak dira, baliabide ekonomiko txikiekin ohituta gaude lan egiten, jarri behar duzu bihotza gauza askotan”.*

Instituzioekin duten harremanari jarraiki, azken ideia interesgarri bat jorratzeko bidea ireki zaigu prozesuan, jatorri askotariko emakumeak kontziente dira udalarekin duten harremana bi norabidetakoa dela, ez dela baliabideak eta laguntza anitzak jasotzeko erakundea soilik, baizik eta **haiek herriari ekarpena egiteko zubiak eraikitze erakundea ere badela**. Elkarlanerako eremu gisan ikusten dute, hartu-emanen oinarrituko harremanak eraikitzeko: *No solo queremos pedir, queremos poder aportar.*

Finean, jatorri askotariko emakumeen harreman sareak ez dira oso handiak Seguran, jatorri bakoitzeko komunitateetan garatu dituzte harremanak eta gutxi dira esparru horretatik at josi dituzten sareak, harremanak edota zubiak. Prozesuak berak jatorri askotariko emakumeen arteko sareak eta harremanak josteko aukera eskaini digu, amaierako balorazioan ikusiko dugun moduan. Baina oraindik bide luzea dago egiteko.

8 ONDORIO NAGUSIAK

Diagnostiko honetatik hainbat ondorio nagusi atera ditugu, zeinak datozen urteetarako bide-orri bat edota eragiteko eremuak definitzeko aukera emango diguten:

1. **Migrazio prozesuak oso ezberdinak** izan badira ere, oro har, bizi baldintza hobeen bila etorri izan dira emakumeak, lanari loturik gehienak
2. **Aldaketa** handiak somatzen dira orain 40 urte migratu zuten emakumeen eta azken urteetan migratu zutenen bizi esperientzietan, bereziki lan-baldintza eta udalarekiko harremanari loturik.
3. Segurara iritsi diren emakume asko **familiako kideak edota bikote harremanen sareak bultzatuta etorri** dira.
4. **Familiaren eta seme-alaben ongizatea** helburu bizi dira Seguran.
5. Jatorri askotariko emakumeak **zaintza, garbiketa eta etxeakoandre lanetara mugaturik daude**. Ez ditugu lan-baldintza orokorrak ezagutzen, baina, oro har, lan-baldintza txarretan aritzen dira lanean.
6. Segurako herritarren gehiengoak harrera ona egin die jatorri askotariko emakumeei, hala ere, bada **epaiketa eta aurreiritzi askoren ondorioz gizarteratzea zailtzen dutenak** eta bizi-esperientzia gogorrak ekartzen dizkietenak.
7. Badira oso **bakarrik** eta isolaturik dauden jatorri askotariko emakumeak.
8. Oro har, Portugalgo eta Hego Amerikako **komunitateak handiak** dira eta beren artean sarea sendoa da. Hala ere, badira **isolatuago bizi diren emakumeak**.
9. **Hizkuntza** da gizarteratzeko muga nagusienetako bat. Gaztelera ikasteko aukera bakarra Beasainen egoteak zaildu egiten du ikasketa prozesua.
10. **Euskara ikasteko prestasuna** handia da naiz eta esperientzia txarra izan duten emakume askok aukera hori baztertu orain urte batzuk.
11. **Segurako zein beste jatorritako emakumeekin sareak ez dira sendoak**, hala ere, gizarteratze egokia izan dute.
12. Gizarteratzeko arrakala handienetako bat **emakume musulmanen janzeraren aurrean dauden jarrerak eragiten dute**. Beloaren eta, oro har, emakume musulmanen berezko janzerak erresistentzia eta epaiketa askoren muina dira. Arazo larrienetako bat beren bizi-esperientzietan.

13. **Beren kultura, festa eta ohiturak Seguran bere osotasunean praktikatu eta bizitzeko ez dute aukerarik.** Era berean, Segurako festak bizi badituzte ere oraindik arrakala nabaria da.
14. **Udalarekin eta hezkuntza-komunitatearekin dagoen harremana oso ona** da eta oso eskertuak daude oro har eskaintzen dizkioten aukera eta laguntzekin.
15. **Balioan jartzen dute Udalak jatorri askotariko emakumeekin lan egiteko eta entzunak izateko espazio eta prozesuak ireki izana.** Bide honetan pausuak emateko beharra eta gogoia aipagarria da.
16. **Prestasun eta gogo handia dago herriari beren ekarpena egiteko,** hartu emana handitu eta kultur arteko espazio eta egituretan parte hartzeko.

9 PROZESUA BERA ERALDAKETA ETA GIZARTERATZEKO GILTZARRIA

Segurako jatorri askotariko emakumeen bizi-baldintzak, gizarteratzeko aukera eta zailtasunak eta beren sareak ezagutzeko eta aztertzeko prozesu honetan, bi emaitza oso ezberdin jaso ditugu: diagnostiko txostena eta prozesuak berak parte hartu duten emakumeengan izan duen inpaktua. Hau da, orain arte landutako diagnostikoak egungo egoeraren argazki bat ematen digu eta hemendik aurrera lanean jarraiko hainbat gako argitzen dizkigu, baina, prozesu honetan bertan eraldatu diren bizitza eta eman diren iraultza txikiek gaintitu egin dute hasiera batetan definituriko helburua. Ez dugu soilik egoeraren argazki bat lortu, prozesuan zehar jatorri askotariko emakume hauen ahalduntze prozesu sendo eta nabari bat bizitzeko aukera izan dugu. Aurrera eraman ditugun saioetan sortu den konfiantzazko giroak, elkar entzun, nor bere bizi-esperientziak partekatu eta hainbat errealiteri izena jartzeko aukerak eraldaketarako bide ezberdinak ireki dituzte. Bestek beste, honako eraldaketa prozesuak gorpuzteko aukera ireki du prozesuak berak:

1. **Alkatearen inplikazioak, ekintza komunitarioaren bidez, parte-hartze anitz eta zabalerako aukerak eman ditu.** Herriko alkatearen (instituzioaren) eta jatorri askotariko emakume askoren arteko harremanak sendotu dira, konfiantza eta interesa piztu da emakume askorengan herrian sozial zein politikoki parte-hartzeko.
 - a. Parte-hartze politikoa handitu da. Prozesuan zehar udal hauteskundeak izan ditugu eta jatorri askotariko emakume batzuek lehen aldiz bozkatzeko interesa erakutsi dute.
 - b. Konfiantza handitu da udalarekiko eta jatorri askotariko emakumeek herriari egin diezaioketen ekarpenaz kontzientzia hartu dugu, baita horretan lanean jartzeko grina areagotu ere.
2. **Ahalduntze prozesu sendoak** bizi dituzte emakumeek.
 - a. Espazio publikoa, herriko plaza eta kaleak segurtasun gehiagorekin erabiltzeko gaitasuna eskuratu dute aitortu dute hainbatek.
 - b. Herriko festetan lehen aldiz kalera atera dira prozesuan parte hartu duten hainbat emakume. Seguran jaiotako herritarrekin festa giroa partekatu dute prozesuan zehar lehen aldiz.
 - c. Saioetan hitz egiteko zailtasunak adierazi zituzten emakumeek saiotik saiora beren parte-hartzea handitu dute, amaieran lasaitasun osoz hitz egiteko gaitasuna irabaziz.
3. **Euskararekiko atxikimendua** handitu da.
 - a. Prozesuaren hasieran udalak hizkuntzen kudeaketan dituen politikak gaitzetsi eta euskara inposizio eta diskriminazio gisan ikusten zuten emakumeen iritzia aldatzen joan da. Euskaraz bizi den emakume marokoar baten esperientziak, kontzientziak eta hausnarketak jatorri askotariko emakumeen kontzientziak astindu ditu. Prozesuaren amaieran asko izan dira euskara ikasteko gogo eta beharra adierazi dutenak, euskarak beren bizitzetan irekiko dituen aukerak jarri dituzte erdigunean.
4. **Harreman sareak zabaltu** dira
 - a. Oro har, nor bere komunitatearen inguruan harremantzen zen hasieran, kaletik ere ia inor agurtzen ez zuten emakumeak ziren. Prozesua amaitzerakoan, bestelako jatorritako emakumeekin eraikitako harremanak sendoak eta ezinbestekoak izan direla

aitortu dute. Orain, kaleak ez dira hain arrotzak eta herrikideak agurtzea bera aldaketa handia izan da askorentzat.

5. Hainbat aurreiritzi gainditu ditugu.

- a. Kultura askotariko emakumeak bildu gara prozesuan eta gure artean aurriritzi eta epaiketak azalera dira. Aurreiritzi hauen gainean hitz egiteko eta nork bere esperientziatik azalpenak emateko aukera izateak eta botere-harremanak gainditu dituen espazio eta dinamikak sortzeak aurriritzi hauek gainditzeko eta hausnarketa sakonak egiteko aukera ahalbidetu du.

Honela bada, prozesuak emozioetatik eta prozesu pertsonal zein kolektibotik asko izan du. Ikaspenez beteriko espazio eta denborak izan dira eta jatorri askotariko emakumeen ondo baino hobeto baloratu dute prozesua. Hona hemen jasotako balorazioetako batzuk:

- *Aliviada, porque no soy la única. No estoy sola. Conocernos más. Aprendes como desenvolverse, como habilitarse más las cosas para el bienestar de cada uno.*
- *Para los 18 años que llevo aquí la primera vez que se preocupan por los latinos.*
- *Yo estoy super bien, no sé, me estoy sintiendo como si no fuera un ambiente, no es un ambiente de inmigrantes, un ambiente de pueblo, super bien, entre mujeres.*
- *Bien contenta, agradecida, agradable, me gusta porque puedo hablar en casa no hablo. Solo hablo cuando voy a clases de euskera.*
- *Muy bien, encantada porque igual vas por la calle le ves no le hablas y cuando tuvimos la primera reunión hemos coincidido en la plaza hemos hablado, estas más a gusto cuando vas coincidiendo con la gente. Vengo al pueblo y vivo a qui y no me siento inmigrante.*
- *También estoy muy bien contenta, conociendo, nos vemos en la calle, pero sin confianza para saludarnos, ahora nos vemos y oye qué tal cuando es la siguiente reunión tenemos algo más que compartir.*
- *Encantadísima de sentirme tan integrada, algo tan rico que disfruta una totalmente.*
- *Súper bien, muy ilusionada con este grupo, compartir nuestras vidas me ha llenado.*
- *Feliz, con 30 caras nuevas, eso me nutre, me gusta.*

- *Con nuevas caras que no sabía que vivían en Segura; el gusto de conocer a nuevas personas, llevarme más con mi vecina, solo nos vemos por la calle, he tenido oportunidad de conocerla más.*
- *He venido de trabajar corriendo, aquí hay una paz y te sientes muy a gusto. Hoy ha sido un tormento, éramos muchas y no sabemos escuchar. Hay que saber escuchar más. Y nada más.*
- *Estaría bien poder tener esta experiencia con mujeres inmigrantes y dos o tres personas del pueblo, mezclarnos también en este sentido.*